



Goiuria ikastolaren historia

‘Goiuria ikastola: auzolan miresgarri baten kronika’ liburua aurkeztu zuten atzo lurretan. 1968tik 1981era bitartean lurretan egondako ikastolaren historia jaso eta transmititzeko helburuz landu dute liburua Markel Onaindiak, Kristina Mardarasek eta Justo Alberdik. Jon Irazabal ere bidelagun izan dute. • **2-3**



Durangaldeko neska gazteen topaketa zapatuan, Elorrion

Durangaldeko neska gazteek elkar eza-gutzea, saretzea eta aliatzea helburu duen biribilketa feminista egingo dute zapatuan, Elorrion. Egun osoko egitaraua antolatu dute: kontzertuak, manifestazioa eta bazkaria egongo dira, besteak beste. • **8**

Esku Hutsik elkartearen topaketa Durangon, "tabua" apurtu dadin



Umea haurdunaldian, erditzean edo jaioberritan galdu duten familiek topaketa egingo dute domekan, Zuhatzolan. Gaia ikusgai egin eta "tabua" apurtu gura dute. • **5**

Gehigarria

**Apatako,
Axpeko eta
Berrizko
jaiak**



"Probatu eta engantxatu egin ninduen; martxa-probagaz lotura berezia dut"

Ainhoa Colino (Berriz, 2004) Euskadiko ibiltaririk onena da. Laster Hego Karolinara (AEB) joango da ikastera eta hango atletismo taldeagaz entrenatzera. • **26**



"Baliteke jende askok ez jakitea bere herrian ikastola bat egon zela eta gurasoek zein lan egin zuten proiektua aurrera ateratzeko"

'Goiuria ikastola, auzolan miresgarri baten kronika' liburua aurkeztu zuten atzo lurretan

IURRETA • JONE GUENETXEA

lurretako Goiuria ikastolaren historia puzzle bat izango balitz lez josi dute. Uriolen eta suteen ondorioz galduriko dokumentazioaren faltan, kronologia osoa testigantzekin eta ikastolaren bueltan ibilitakoek gorderiko paperekin osatu dute. Informazio hori guztia 'Goiuria ikastola, auzolan miresgarri baten historia' liburuan jaso dute. Markel Onaindia Txabarri (lurreta, 1983), Kristina Mardaras Sedrun (1948) eta Justo Alberdi Artetxe (lurreta, 1946) izan dira ekimenaren bultzatzaileak, Gerediaga elkartearen eta lurretako Udalaren laguntzagaz. Jon Irazabal ere bidelagun izan dute.

Zelan sortu zen Goiuria ikastolaren historia jasotzeko asmoa?

Kristina Mardaras: Egindako lan guztia galduta geratu beharrean, lan horren berri ematea izan da helburua. Batez ere, osteko belaunaldi transmitioa egitea gura genuen. Gazteek ez dezaten pentsatu euskara goitik behera berez mantentzen den gauza bat dela, edo Jaurilaritzak eskolei eman diela. Esango genuke Goiuria ikastolaren sorrera Euskal Herrian egindako iraultza kultural baten barruan sartzen den atal bat izan zela. Baina gure ekarpena

kontatu behar genuela uste dugu. Berezia izan zela uste dut, batez ere auzolanean egindakoa izan zelako. **Justo Alberdi:** Liburua lantzerakoan asko emozionatu gara, gauza askogaz konturatu garelako. Negar anpuluren bat ere jausi zaigu. Jende asko elkarrizketatu dugu, kolore guztietakoa.

Izan duzue zailtasunik Goiuria ikastolako dokumentazioa batzerako orduan?

K.M.: Bagenekien dokumentazio aldetik zailtasunak izango genituela, 1983ko urioletan dokumentu asko galdu zelako eta sute bat ere egon zelako. Zailtasun horren aurrean, argi genuen elkarrizketak egin behar genituela. Horregaitik, adineko jendea elkarrizketatzen hastea erabaki genuen.

J.A.: Kristinak eta biok bagenuen oinarri bat, idazkari izan ginelako Goiuria ikastolako batzordean. Zorionez, paper zaharrak gordetzeko ohitura txar hori dugu eta bagenituen karpeta batzuk, Goiuria ikastolakoak eta Kurutziaga ikastolakoak, baita Gerediaga elkarteak ere. Izan ere, lurretako ikastolako batzordean egon nintzen urteetan Gerediaga elkarteak Kirikiño Sailean idazkari egon nintzen.

Kirikiño Sailak Durangaldeko ikastolen koordinazioa egiten zuen.

Markel, zein ekarpen egin duzu proiektu honetan?

Markel Onaindia: Ia 60 elkarrizketa egin ditugu. Liburua horretan oinarritzen da. Bideoan ere grabatu ditugu eta uda ostean dokumentala egingo dugu. Kronika estiloan idazten ahalegindu naiz. Bestalde, urte asko pasatu denez, batek esandakoaren eta besteak gogoratzen zuenaren artean, datu historiko batzuk koadratu behar izan ditugu. Puzzle hori nahiko ondo osatu dugu. Hasieran, kostatu zitzaigun hamahiru urteren barruan orden kronologiko bat ezartzen. Batez ere zenbat bider zarratu zen, noiz zabaldu zen...

Itxierei dagokionez, Goiuria ikastola zenbat bider zarratu zuten?

M.O.: Ikastola birritan zarratu zen. 1969ko maiatzean eta 1971ko martxotik aurrera hile batzuetan ere bai. Epe horietan, ikastolako guraso batzuen etxera joan behar izan zen. Ikastola klandestino lez funtzionatu zuen. Elizan eta sakristian ere eman ziren eskolak.

Goiuria ikastola non egon zen kokatuta?

J.A.: Julian Berriozabalgoitiaren

etxean eta Urrestitarren akademian ere egon zen. Ondoren, Cinsa argitaletxearen laguntzagaz pisu bat erosi zen. Pisu hori saldu egin zen eta diru horregaz gaur egun Goiuria kultur etxea dagoen lekuan kokatu zen. Cinsak diru hori dohaintzan eman zuen.

Kronologia horretan, zer nabarmendu-ko zenukete?

M.O.: Ildo kronologiko horren barruan, ikastolaren bultzatzaile izan zirenek proiektua aurrera ateratzeko egindako ahaleginari garrantzia ematen ahalegindu naiz. Zarratu zuten aldi bietan zelan eutsi zioten eta zelan lortu zuten 1972an ikastola legalizatzea. Prozesu hori guztia liburuan jasota dago eta oso interesgarria da ikustea, ekonomiki finantziario barik egonda, gurasoek zelako auzolana egin zuten espazioak sortzeko. Sasoi hartan ikastolen aldeko mugimendu handi bat sortu zen. Oso anitza izan zen gainera.

“lurretak eskola herrian behar zuela ikusi genuen. Hori fusioaren alde egiteko arrazoi bat izan zen”

Durangaldean zein mugimendu zegoen ikastolen arloan?

K.M.: 1966an Kurutziaga sortu zen, eta han ere inspektorearen aitzurra sufritu zuten. Egun batzuetan ikastola zarratu egin zieten. Leopoldo Zugazak kontatu zigun Madrilera joan zela hori negoziatzera. Sasoi hartan, Oleanean eta euren etxean izan zituzten umeak. Inspektorea

zetorrenean, zarratu egin behar izaten zen. Ez lurretan bakarrik. Sasoi hartan, Zaldibarkoak ere Kurutziagara joaten ziren. Bakoitzak bere eskolaurrea zuen herrian, baina Lehen Hezkuntza eskaini ezin bazuten, Durango izaten zen topagunea. Horrela adostu genuen. Elorriok eta Berrizek LH euren herrietan izan zuten. Hasieran, Abadiñoako Traña-Matienakoak eta Atxondokoak Durangora etortzen ziren. Gero, Atxondotik Elorriora joaten hasi ziren. Beraz, eskualdera begira lan egiten hasi ginen.

J.A.: Durangoko ikastola 1966an sortu zen. 1967an Zornotzakoa. 1968an lurretakoa, Otxandiokoa, Elorriokoa, Zaldibarkoa eta Traña-Matienakoa, batera samar. Durangoko ikastola, sasoi hartan, Kurutziagan zegoen. Hirugarren urtean, leku arazoa sortu zen. 1969an, Durangok LH 1. maila martxan ipini behar zuen eta lekua behar zuen. Hor, Gerediagako Kirikiño Sailaren ekarpena batzordea sortzea izan zen, LH Durangalde osorako zentro bat egiteko. Ikastola berri bat behar zela erabaki zen eta Kurutziaga ikastolako txaleta erosi zen.

M.O.: Ikerketa interesgarria da, batez ere sasoi hartan Durangaldean sortu ziren gainerako ikastolen inguruan ere berba egiten delako. Baliteke jende askok ez jakitea bere herrian ikastola bat egon zela eta gurasoek zein lan egin zuten proiektua aurrera ateratzeko. Interesgarria izan daiteke beste herri batzuetan ere arakatzeko.

Urte batzuk geroago, Goiuria ikastola Maiztegi eskolako proiektura batu zen.

M.O.: 1980-1981 ikasturtea Goiuria ikastolaren azkenengo urtea izan zen. Sasoi hartan, Eusko Jaurilaritzatik izaera publiko edo pribatua izateko aukera planteatu zitzairen hainbat ikastolari. Eusko Jaurilaritzak Hezkuntzako konpetentzia hartu berri zuen eta eskola publiko martxan ipintzen zebiltzan. lurretaren kasuan publikatzea onartu zen, hemen zegoen Maiztegi eskolara batuz. Ordura arte, gaztelaniazko eskola bat zen eta kurtso oso horretan eztabaida sortu zen. Jaurilaritzagaz negoziatu zuten, eta akordio horren barruan hainbat elementu egon zen eskola euskalduna izango zela ziurtatzeko: eskola D ereduakoa izango zela, Goiuriako irakasleak Maiztegiara joango zirela eta 10 urterako jarraipen batzorde bat egongo zela.

K.M.: Gurasoek diote fusio horrek merezi izan duela. Linea pedagogikoak jarraitzen du, herriagaz hartu-eman handia duena.

J.A.: Sasoi hartan lurreta pizten zebilen, oraindino Durangoren menpe zegoen arren. Kurutziaga bete zenean, ikusten zen gure umeak deserriratzeko ari zirela modu batean. lurretak eskola herrian behar zuela ikusi genuen. Hori fusioaren alde egiteko arrazoi bat izan zen.

"Ikastolarako dirua ateratzeko, gure amak paper-fabrikatik ekarritako zakuak josten egoten ziren plazan"

60 elkarrizketatik gora egin dituzte Goiuria ikastolaren historia jasotzeko. Mapi Zugazartazak eta Marijo Berrojalbizek solasaldi horietan parte hartu dute



Marijo Berrojalbiz eta Mapi Zugazartaza.

DURANGO • J.G.A

Mapi Zugazartaza Gutierrez (Iurreta, 1964) eta Marijo Berrojalbiz Zarrabeitia (Iurreta, 1964) Iurretako Goiuria ikastetxeko lehenengo belaunaldiako ikasleak izan ziren. Ondo gogoratzen dute sasoi hartan bitzitakoa.

Goiuria ikastolari buruz galdetuz gero, zer datorkizue burura?

Mapi Zugazartaza: Lehenengo eta behin, egin genituen leku aldatetarako datozkit burura. Ez ditut zehatz-mehatz gogoratzen. Sakristian egon ginen oroitzen ez daukat. Berriozabalgoitiaren pisukoa bai, eta Nerea Etxegibelen etxekoa ere bai. Gure etxean ere egon ginen, baina ez dut gogoratzen.

Kontatu dizute zuen etxean egon zineteneko ezer?

M.Z.: Amak kontatzen du andereñoa etxera etortzen zela. Inspektoreak etortzen zirenean, lagunak zintzen zebiltzala esaten zuten. Denbora gutxi izan zen.

Marijo Berrojalbiz: Gero, Nerea Etxegibelen etxera joan ginen, eta han denbora gehiago egin genuen. Bost ume ginen gelan eta oso familiarra zen. Iurretan Ana, Maribí, Uri eta Montse. Kurutziagan Maritere, Isabel Astoreka... etapa horretako andereño guztiak gogoratzen ditut.

Ondoren, Kurutziagara joan zineten?

M.Z.: Baimen guztiak ikastola sortu zenean pisu batera joan ginen. Gero, gu baino gaztetxoak etortzen hasi ziren, hurren-

go belaunaldiak. Hortik, LHra Kurutziagara joan ginen.

Durangoko ikastolaren lehenengo pausoak bizi izan zenituzten.

M.Z.: Hasieran, aldaketa hori trauma bat izan zen guretzat (barrez).

M.B.: Hemen bost ginen gelan. Familia bat. Durangora joan ginenean, Kurutziagatik etorri zirenak talde handiago bateko kide ziren. Berrizkoak eta Zaldibarkoak ere gehiago ziren.

Kurutziagako gaur egungo kokapenaren lehenengo pausotatik egon zineten. Zelan gogoratzen duzue?

M.A.: Txaletera joan ginen eta hura ere oso familiarra izan zen. Andereñoek eta gurasek asko parte hartzen zuten.

Auzolan hori gogoan duzue?

M.Z.: Gu Iurretako plazan hazi gara. Ikastolarako dirua ateratzeko, gure amak paper-fabrikatik ekarritako zakuak josten egoten ziren plazan. Arratsalde osoak pasatzen genituen bertan. Gure aitak obretan lanean gogoratzen

ditut. Lanetik irten eta gauera arte ikastola sortzera joaten ginen.

M.B.: Batera egoten ginen denok. Iurretan beti izan gara familia bat. **Orain, Maiztegi eta Kurutziaga ikusterakoan, zer sentitzen duzue? Lehenengo pausotatik hortxe egon zineten.**

M.Z.: Behin fusioa eginda, nire seme-alabak Maiztegiara etorri ziren. Aurrerapauso garrantzitsua iruditu zitzaizkidan.

Elkarrizketa egin dizute libururako.

M.Z.: Kurutziagako 50. urteurrenaren ospakizunean pentsatu genuen antzeko zeozer egin behar genukeela Goiuria ikastolaren inguruan. Gero, pandemia etorri zen. Kristina Mardarasek deitu zigunean liburua egiteko asmoa zegoela esateko, poz handia hartu genuen.

M.B.: Badirudi ahaztutako zeozer dela, eta transmisioa oso garrantzitsua da. Herrian egin dako proiektu bat izan zen, ez bakarrik gurasek. Herri guztia egon zen inplikaturik proiektu horretan.



Momoitiora eginiko txangoan, 70eko hamarkada amaieran.



Umeak ikastolako gela nagusian, 1975-76 ikasturtean.



Ikastolatik eginiko irteera batean, Mila Madariaga andereinoagaz.

XVI. Iurreta Kalez-Kale 2022



EKAINAK 17 18:30 ASKONDO "PLAZA ABORDAIA" Deabrukeriak Antzerki Taldea	 20:00 - DANTZARI AUZKALO Eriz Magoa
EKAINAK 18 18:30 DANTZARI YES WE ART Ameztu Antzerki Taldea	 20:00 - ASKONDO OH-OPERA Tosco Zirkoa
EKAINAK 19 13:30 ASKONDO POR HACER UN FAVOR Trapu Zaharra Antzerki Taldea	

Sarrera dohainik - Gonbidapenak hartzeko kultur etxean.

Bizkaia EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Iurreta Ekitzateko Udala

24 proiektu eta 800.000 euro Durangoko aurrekontu parte hartzaileak erabakitzeko

Durangarrek zabalik dute 2023ko aurrekontu parte hartzaileetan botoa emateko epea, ekainaren 26ra arte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Diru partida 800.000 eurora artekoa da, eta proiektuen artean ur-jolasetarako parkea egitea, bizikletentzako garbigunea egitea, Madalenako ermita birmoldatzea, 1.001 zuhaitz landatzea, frontoi irekiak egitea eta komun publiko gehiago ipintzea daude. Durangoko Udalak 2023ko aurrekontu parte hartzaileen azken fasea zabaldu du. Ekainaren 26ra arte, herritarrek bozkatu dezakete *partehartu.durango.eus* atarian. Hiru proiektu bozkatu ahalko dituzte gehienez. Horre-

tarako, 3, 2 eta 1 puntuko sistema erabiliko dute eta punturik gehien eskuratzen duten proiektuek egingo dute aurrera, betiere udalak ipinitako diru poltsa agortu arte. 800.000 euro horietatik 600.000 herriko sei gune edo auzoetako proiektuak garatzeko erabiliko dituzte. Gainerako 200.000 euroak, herri osorako proiektu orokortarako. Udal agintarien berbetan, aurrekontu parte hartzaileek durangarrak "ahaldundu daitezzen eta udalaren erabakietan parte hartu eta erabaki dezaten" balio dute.



Madalenan, Ibaizabalen eta San Fauston umeentzako jolasguneak ipintzea dira proposamenetarikoz batzuk. Irudian, San Inazioakoa.

Kale animazioa eta merkatua Durangon, udari ongietorria egiteko

Dendak Baik eta Naiz Marketek euren produktuak kaleratuko dituzte asteburuan. Barikuan zankoen kalejira egongo da. Zapatuan eta domekan merkatua, Andra Marian

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko dendari eta artisauek kalera irtengo dute udari ongietorria emateko. Barikuan eta zapatuan, produktuak kalera aterako dituzte, eta oparixoren bat banatuko dute. Horrez gainera, barikuan, 18:00etan, suagaz eta bengalekin lagunduriko zankoen kalejira egingo dute herriko kaleetan. Bestalde, Naiz Marketek Andra Mariko elizpean egingo du merkatua, zapatuan eta domeka goizean. Bertan, sortzaile berrien arropa, osagarriak, artea eta *vintage* produktuak egongo dira. Zapatuan zuzeneko musika saio bat egingo dute, 19:30ean, eta beste bat domekan, 11:30ean.



Naiz Marketeko kideek eginiko azoka bat.

Gaitasun Handiko Osasun Zentroa aurkeztuko diete durangarrei

Durangoko EAJk aurkezpen erronda bat egingo du ekainaren 16tik 30era bitartean, herriko sei gunetan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ekainean zehar, Durangoko EAJk sei saio egingo ditu Gaitasun Handiko Osasun Zentroaren proiektua aurkezteko. Proiektuak "durangarrentzat dituen onurak" azaldu eta "herritarren beharrezko babesa" bilatu gura dute. Izaskun Urien Durangoko Uri

Batzarrek presidentea eta Mireia Elkoroiribe bozeramailea arduratuko dira azalpenak emateaz. Madalenan, Batzokian, San Faustoko elizan, Elkartegian, Institutuan eta Ibaizabal ikastolan egingo dituzte aurkezpenak. Bakoitzaren xehetasunak *anboto.org* atarian kontsultatu daitezke.



EAJren proposamenaren infografia.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko ekainaren 17a
20. urtea - 897. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Esku Hutsik elkarteko kideek egindako topaketa bat.

"Gaia hor dago: lau familiatik batek umea galdu du haurdunaldian, erditzean edo jaioberritan"

Esku Hutsik elkarteak umea haurdunaldian, erditzean edo erditu eta gero galdu dutenen arteko topaketa egingo du Durangon. Domekan egingo dute, Zuhatzolan. "Tabua" haustera deitu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Esku Hutsik elkarteko kideek argi dute. Umea haurdunaldian, erditzean edo jaioberritan galtzearen gaia hor dago. Existitzen da eta gizarteak "tabu" lez begiratzeari utzi behar dio. Maria González Gómez (Getxo, 1987) elkarteko presidentek gaiaren ikusgaitasuna aldarrikatu du: "Ikusgaitasuna eman behar diogu gai honi, hain zuzen ere, hor dagoelako. Lau familiatik batek umea galdu du haurdunaldian, erditzean edo erditu ostean. Espainiako estatuko datuek diote urtean 2.500 bat ume hiltzen direla haurdunaldiko 22. eta 41. astean artean. Baina kopuruak handiagoak dira, datu horietan ez direlako lehen hiru hilekoan hildako umeak azaltzen. Ezta bizirik jaio arren gerora hiltzen direnak ere".

Esku Hutsik elkarteak orain urtebete ekin zion ibilbideari. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan lan egiten du. Gaur egun 90 bazkide ditu inskribatuta; tartean, Durangaldeko hamar bat. Bazkiderik gehienak umea galdu duten familiak dira, baina elkartean badira dolua egiteko laguntza eskaintzen duten profesionalak ere. Domeka honetan, horien guztien arteko hartu emanak sustatzeko topaketa egingo dute Durangoko Zuhatzola parkean. Bizipenak kontatuko dizkiote elkarri. Gonzalezek dioenez, "familia askok bizi

dute galera, eta dolu horrek erre-konozimendu bat behar du. Haur horiek entitate bat izan behar dute gizartean, existitu direlako eta familia horien oroimenean egoteko eskubidea dutelako". Izan ere, elkarteko presidentek ondo gogoan du orain sei urte gertatu zitzaiona: "Nire lehenengo alaba

Elkartekoak ez diren kideentzat ere zabalik dago topaketaren ataletariko bat

Esku Hutsiken topaketa 11:00etan hasiko da, domekan, Zuhatzolan. Ongietorria eta dantzarien aurrekua egingo dute lehenengo. Gero, elkarteko kideek elkarri berba egiteko eta entzuteko tartea zabalduko dute. 13:00etan, elkarteko kide ez direnen txanda izango da. Elkarteak harrera egingo die. Eguna poesia eta idatzien irakurketagaz eta bazkariagaz osatuko dute. Amaieran, omenaldia egingo diete galduriko umei.

haurdunaldiko 37. astean galdu nuen. Eta sozialki oso bakarrik sentitu nintzen. Familiak bai, baina inguruko jendeak, lagunak, ez zuten doluagaz laguntzen jakin. Gaiari buruz berbarik ez egitea onuragarria den ideia hori zabaldua dago. Baina gertatzen dena justu kontrakoa da. Baten bategaz negar egiteko beharrezana duzu, barrenak hustekoa", dio.

"Umea galtzean bakarrik sentitu nintzen, inguruko lagunak ez zuten doluagaz laguntzen jakin"

Laguntza emateko prest
Iratxe Uribebarrea mallabitarrak ere antzeko bizipenak izan ditu. 2014an lehenengo umea galdu zuen, eta 2017an bigarrena. "Bigarrena galdu eta gero, gertaturikoa partekatzeko beharrezana sentitu nuen eta egoera berean zeuden beste familia batzuekin batera elkarte sortu genuen", azaldu du. "Elkarte gertaturikoa partekatze-ko espazio bat da, ulertua sentitzen zara. Egoera berean dagoenari esango nioke idatzeko, elkarteagaz hartu-emanetan ipintzeko. Behar duenari laguntzeko prest gaude", adierazi du Uribebarreak.

Garaitarrek eta elorriarrek Europako Mendietan hildakoak gogoratu dituzte

35 urte bete dira istriputik. Aurten plaka bat ipini dute Sohorninen, helikopteroak jo zuen mendi tontorrean

GARAI / ELORRIO • EKAITZ HERRERA

Garaiko dozena bat herritar eta Elorrioko beste dozena bat Asturiasen egon dira orain 35 urte Europako Mendietan hil ziren erreskate taldeko kideak omentzen. Ekitaldian Euskadiko eta Asturiasko Erreskate Txakurren Unitateko kideek, istripuan hildakoen senitartekoek eta lagunak parte hartu dute. Besteak beste, Gontzal Sarrigoitia garaitarra egon da bertan. "Aurtengo omenaldian berrikuntza bat egin dugu. Helikopteroa kolpatu zen Sohornin mendi tontorrean plaka bat ipini dugu. Plakan, istripuan gertaturiko guztia kontatzen

da, izen-abizenekin", azaldu du. Sarrigoitiak, bestalde, Asturiasko Erreskate Txakurren Unitateko kideen lana eskertu du. "Oso modu abegikorrean jaso gaituzte. Dena erraztu digute. Baimen guztiak kudeatu dizkigute", esan du.

1987ko ekainaren 12an Durangaldeko lau herritar hil ziren Covadongako lakuetatik gertu, han inguruan galduriko ume bat topatzeko lanetan zebiltzala. Erreskate lanetan zebilen helikopteroak Sohornin tontorra kolpatu, eta Covadongako lakuen ondoko errepidera jausi zen. Istripuan lau lagun hil ziren: hiru elorriar eta garaitar bat.



Shornin mendiko gailurrean plaka jarri zuten joan zen asteburuan.



GARAIKO UDALA

GARAI ELIZATEKO UDALA
San Migel auzoa, 20- 48200 Garai
udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

GARAIKO UDALAK LURSAIL BAT JARRI DU SALGAI MILIKUA EREMUAN

Garaiko Udalak bi lursail ditu Milikua eremuan eta horietako bat salgai jartzea erabaki du. Familia bat bizitzeko aukera ematea da salmentaren arrazoia. Izan ere, Garain ez dago eraikigarriak diren lursailen aukera handirik.

Ezaugarriak:

- Lursailak 3.066,12 metro koadroko azalera dauka.
- Lursailak, 377 metro koadroko gehienezko eraikigarritasuna dauka.
- Lursailaren gutxieneko prezioa 72.433,05 eurokoa da. Prezioari aplikatu beharreko zerga BEZ-aren %21a da.
- Interesdunek uztailaren 27ko 23:59ak arte egin ahalko dituzte eskaintzak. Horretarako, bitarteko elektronikoak baliatu behar izango dituzte.

Edozein gisaz, xehetasunak eskatu, zalantzak argitu edo argibideren bat behar izanez gero, interesdunek Garaiko Udalera jo dezakete.

Garain, 2022ko maiatzaren 26an
Alkatea

“Kartel bat diseinatzerakoan motibazioa garrantzitsua da, prestakuntzaz gainera”

Ignacio Conde abadiñarrak irabazi du Izurtzako jaietako kartel lehiaketa. Pandemiagaitik urte bian kaxan gordeta izan ditugun oroitzapenak apurka handik ateratzen eta normalitatera bueltatzen gabiltzala islatu gura izan du kartelean



Ignacio Conde Martin

Izurtzako kartel lehiaketako irabazlea
ABADIÑO | 1972

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Argazkigintza eta kartelgintza ez dira bere ogibidea, baina bai bere pasioa. Makina bat lehiaketatan parte hartu eta behin baino gehiagotan irabazi du. Bere sorterrian hainbat sari irabazi du. Orain Izurtzako gehitu dio bere palmaresari.

Kartelgintza aspalditik datorkizun afizioa da?

Bai, ni gernikarra naiz jaiotzez, eta han bizi nintzenean marrazkigintza eskolak hartzen nituen. Betidanik interesatu zaizkit irudigintza, argazkigintza eta diseinua. Zer irudikatu gura izan duzu Izurtzako kartelean?

Izurtzako lagun bat dut eta hiru urte daramatzat lehiaketan parte hartu guran, baina arrazoi bategaitik edo besteagaitik ezin izan dut. Kartelaren ideia haxe da: apur bat normalitatera bueltatzen gabiltza eta urte bian kaxa batean gorde ditugun jaietako oroitzapenak handik ateratzen hasi gara. Urrats horren ideia islatu gura nuen. Irudian, jaietako elementuak ageri dira. Esaterako, jaietako maskota den edo izan zen basurdea eta antzerakoak. **Ez da sari bat irabazten duzun lehenengo aldia.**

Ez, Traña-Matienan lau bat bider irabaziko nuen. Abadiñoko egute-

gikoa ere bai, sanblasetako argazki lehiaketa...

Gaur egungo gizartean ohiturak eta joerak arin aldatzen dira. Kartel lehiaketek modan jarraitzen dute ala behe-rakada bat gertatu da?

Diseinua gustuko duen jende gazte askok horrelako lehiaketak erabiltzen ditu bere sormena lantzeko. Ez nuke esango boom bat dagoenik, baina orain dela zortzi bat urte baino jende gehiagok parte hartzen du orain. Lehen gutxiago ginen. Alde batetik, profesional batzuk zeuden, Durangora eta herri handietara aurkezten zirenak. Gero, ni lako afizionatuak geunden, denbora ahal genuen tokitik ateratzen genuenak.

“Izurtzako lagun bat dut eta hiru urte daramatzat lehiaketan parte hartu guran”

Jende gehiago dabil eta gazteak prestatuta daude. Kartelen batez besteko kalitatea igo egin da?

Bai, baina kartel bat diseinatzerakoan motibazioa ere garrantzitsua da, prestakuntzaz gainera. Hau da, ez da ordainpeko lan bat, baliteke kartel batean ordu asko inbertitu eta ezer ez irabaztea. Horrek atzera bota zaitzake. Gustatu egin behar zaizu. Niri ez dit ardura ez irabazteak. Kartel bat diseinatzen dudanean edo argazki bat ateratzen dudanean gozatu egiten dut, horregaz jada irabazten nabil.

Mañariko Udalak diruz lagunduko die alokairuan bizi diren hiru mañariarri

MAÑARIA • J.D.

Mañariko aurtengo udal aurrekontuetan 10.000 euroko diru atal bat gorde dute herrian alokairuan bizi diren herritarrei laguntzeko. Laguntzak eskatze-

Aurrekontuetan 10.000 euroko diru atala gorde dute alokairuan bizi direnei laguntzeko

ko epealdia amaituta, aurtengo bost lagunek egin dute eskaria. Jasoriko eskariak aztertu eta gero, eurentariko hiru onartu dituzte. Beste biek ez zituzten baldintzak betetzen, udal arduradunek azaldu dutenez.

Otxandioko eskolako patioan aniztasunaren aldeko murala marraztu dute

Ione Larrañaga ilustratzailearen diseinua umeek pintatu dute



Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleek pintatu zuten murala, joan zen astean.

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko eskolako Hezkuntza Batzordeko ikasleek bilera batean irten zen ideia; patioan horma irudiren batez doretu zitekeela proposatu zioten zuzendaritzari. Honek udalari ideia azaldu, eta denen elkarlanari

eskerrak aniztasunaren aldeko murala egin dute, 24 metro luze dena. Ione Larrañaga ilustratzaileak diseinatu du irudia eta eskolako umeek pintatu dute. Irudian kolore anitzeko bost esku ageri dira, aniztasunari keinu egiten diena.

Trabakua-Longa auzo bidea asfaltatuko dute Mallabian

Udalak lizitaziora atera du proiektua, 117.209 euroan; Trabakua-Longa auzo bideak 1,6 kilometroko luzera du

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalak Trabakua-Longa landa bidea konpondu eta berrir asfaltatuko du. Horretarako, proiektuaren lizitazioa atera du, 117.209 euroan. Gaur egun zorua txarto dago eta horixe saneatzea da obren helburua.

Trabakua-Longa landa bideak 1,6 kilometro inguruko luzera du eta BI-430 foru errepide zaharrari dagokio. "Errepidea ez dago ondo eta oso beharrezkoa da zenbait obra egitea berrir asfaltatzeko", azaldu du Igor Agirre alkateak.



Auzo bidea ez dago ondo, udal arduradunen esanetan.

haizetara

XV.

FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKAREN
NAZIOARTEKO LEHIAKETA

EKAINA
24, 25, 26
2022

AMOREBIETA • ETXANO

HIP HORNS BRASS COLLECTIVE
Barcelona

LA MARMAILLE POST-FANFARE
France

KAMIKAZE BEAT BAND
México

BRASSASS
Argentina

LA TROMBA
Chile

STEAM BRASS BAND
Murcia

BOKALE BRASS BAND
Baiona

REMORK & KARKABA
Belgique

BOJAN RISTIĆ BRASS BAND
Srbija

THE GOMBO REVOLUTION
France



www.haizetara.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**amorebieta
etxano**
UDALA AYUNTAMIENTO



"Marixurrike herritik eta herriarentzat sortu zen eta lekukoa herriko batek hartzea gura genuke"

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Amaia Camuñas, Arantza Rodríguez eta Alazne Alzuaran orain 6 urtetik arduratzen dira Marixurrikeren kudeaketaz. Baina "etapa polit honi" amaiera emateko ordua heldu zaiela iruditzen zaie eta aisialdi taldeagaz jarraituko duen norbaiten bila dabiltza.

Sei urteren ondoren, Marixurrikeko etapa ixtear zaudete.

Alazne Alzuaran: Etapa hau amaitzeko ordua heldu zaigu. Erreleboa eman eta generazio aldaketa baterako ordua heldu da. Orain arte, geu arduratu gara kudeaketaz: ekintzak antolatzeaz, begiraleak topatzeaz... Baina, orain, elkar-tearen gestio osoa hartuko duen norbaiten bila gabiltza.

Amaia Camuñas: Marixurrike herriko aisialdi guztiaz arduratzen da eta hori antolatuko duen norbaiten bila gabiltza.

Arantza Rodríguez: Marixurrike herritik eta herriarentzat sortu zen eta lekukoa herriko norbaitek hartzea gura genuke. Gutariko bakoitzak geure bidea egin dugu apurka-apurka, gure lana dauka-gu eta ezinezko egiten zaigu denagaz jarraitzea.

A. A.: Kontziente gara Atxondoko errealitatea zein den, baina asko poztuko ginateke erreleboa herriko norbaitek hartuko balu, gure filosofiari jarraituko dion norbaitek. Beraz, herriko gazteak animatu gura genituzke. Testigu aldaketa horretan bidelagun izango gaituzte.

Zer eman dizue zuei Marixurrikek?

A.R.: Marixurriken hasi arte, nik lo baino ez nuen egiten Apatan. Eta, orain, askoz ere lotura estuagoa dut herriagaz, askoz ere jende gehiago ezagutzen dut, eta Marixurrikeri eskerrak herriak gauza asko eman dizkit.

A. A.: Gurasoekin eta umeeekin ere lotura estuak sortzen dira.

A. C.: Bai Marixurrikek bai guk herriko familien babesu dugu eta horrek aurrera egiten laguntzen du. Marixurrikeri eskerrak oso hartu-eman politak sortu dira Atxondon.

Interesdunek zer egin beharko lukete?

A.R.: Gutariko baten bategaz kontaktuan ipini daitezke, edo, bestela, marixurrikedok@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Abadiñoako Udalak bigarrenenez esleitu du Astolako udal igerilekuen estalki berria



Eguazteneko osoko bilkurako argazkia.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguazten honetan egindako ezohiko osoko bilkuran, Astolako udal igerilekuen estalki berriaren obrak esleitu dituzte. Bigarrenegoz esleitu dituzte, 1,2 milioi euroan. Udaletik jakinarazi dutenez, guztira lau enpresa aurkeztu dira esleipenera. "Uste dugu proiektu ona dugula mahai gainean, eta horren froga udal baliabideak optimizatzeko aukera emango diguten eta dagoeneko jaso ditugun diru laguntzak dira. Denoi luze egiten ari zaigu itxaronaldia, baina merezi izango duela uste dugu, eta herritarrek kalitatezko kirol instalazio batez gozatuko dutela", azaldu

du prentsa ohar bidez Mikel Garzaizabal alkateak.

Bestalde, Javier Crespo alkateordeak kontratu horren garrantzia azpimarratu du, herritarren hainbat eskariri behin betiko konponbidea emateko.

Mikel Urrutia EH Bilduko kideak azaldu du prozesuaren alde daudela. "Urte bi eta erdi pasatu behar izan dira proiektua lizitatzeko, eta, gainera, aurten lehenengoz igerilekurik barik egongo gara Abadiñon. Bestalde, udalak aukera ona izan du gogeta egin eta jendearen proposamenak jasotzeko, baina ez da egin", kritikatu du EH Bilduren bozeramaileak.

Biribilketa feminista zapatuan Elorrion; Durangaldeko neska gazteek elkar ezagutzea eta saretzea du helburu topaketak

Egun osoko egitaraua antolatu dute: tailerrak, bazkaria, manifestazioa, akelarrea eta kontzertuak egongo dira, besteak beste



Iaz lurretan egindako topaketako argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangaldeko neska gazteek elkar ezagutzea, saretzea eta aliatzea helburu duen biribilketa feminista zapatuan egingo dute, Elorrion. Aurreko urteetan, Zaldibarren, Durangon eta Iurretan egin izan dute topaketa. Zornotzako Suhaziak neska gazte taldea, Iurretako Auskari neska gazte taldea, Elorrioko neska gazte taldea, Abadiñoako Izpilikuak talde feminista eta Zaldibarko eta Durangoko mugimendu feministan dabilen zenbait neska gazte dira antolatzaileak, eta, jakinarazi dutenez, herri osoan zehar sakanatuta egongo den egitaraua antolatu dute.

11:00etan emango diote hasiera egunari, Durangaldeko neska gazteen aurkezpene eta eskualde-

ko argazki feminista bat eginda. Ostean, hainbat tailer egingo dute: soinu ekipo tailerra, erotik tailerra eta zaintza tailerra. 14:30ean bazkaria egongo da, eta, gero, bakarrizketa plazan. 17:30ean pala ikuskizuna egongo da: Jaione Escribano eta Udane Iturbe Ane Aldamaren eta Naroa Saezen aurka arituko dira.

19:00etan manifestazio musikatu egongo da: 'Hau ez delako gure oreka, elkarrekin saretuz sistemari kolpeka' lelopean. Manifestazioa amaitu eta gero, akelarrea egongo da plazan.

Kontzertuekin emango diote amaiera egunari. 22:00etan hasita, honako talde hauek arituko dira Ateneoan: Eskualdeko PT taldea, Usurbilgo Maddi eta Elene, eta Ginger talde zarauztarra, eta horien ondoren, DJak.

Durangaldeko Biribilketa feministako antolatzaileek eskualdeko neska gazte guztiei dei egin diete zapatuko elkargune izango den egunean izena eman eta borroka feministara batzeko.



**Anbotok Zaldibarko Olazar
pilotalekuan jokatuko den
pilota jaialdi profesionalerako
bi sarrera zozkatuko ditu
Anbotokideen artean.**

** Izena emateko azken eguna ekainak 21 izango da.*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**30€
urtean!**

**> anboto
kide**

Felix Delgado garaile Zaldibarko lehenengo goitibehera jaitsieran

Delgado trapagarandarrak 55 segundoan egin zuen jaitsiera eta errekor berria ezarri zuen



Jaitsierako irudi bat. DELFIN ZUBIZARRETA

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Goitibeherazaleasuna berreskuratzeko asmoagaz jaio zen Aldatsa elkarte. Asteburuan, Zaldibarko I. Goitibehera jaitsiera egin zuten eta elkarteko kideak pozik agertu dira probak izandako harreragaz. Dozenaka herritarrek girotu zuten lasterketa, eta parte hartzaileak ere gustura aritu ziren jaitsierak giro betean egiten. Felix Delgado trapagarandarrak irabazi zuen jaitsiera, errekorra ezarrita. Delgadok oso goian utzi zuen langa hurrengo aldietarako,

izan ere, 55 segundoan jaitsi zen. "Jaitsierak badu berea, abiadura, bihurtune teknikoak, malda...", azaldu zuen txapeldunak. 40 bat lagunek parte hartu zuten jaitsieran, modalitate desberdinetan. Antolatzaileen lana goraipatzeko berbak ere eduki ditu irabazleak: "Oso giro polita egon zen eta segurtasun aldetik ere sekulako lana egin zuten antolatzaileek".

Aurten sortu dute Aldatsa elkarte, baina iaz Goierri auzoko jaietan ere antolatu zuten goitibehera jaitsiera; hamalau urteren ostean berreskuratu zuten proba.

Pandemiaren eraginez bertan behera geratu diren probak berriro egiteari ekin diote Euskal Herriko beste hainbat herritan ere. Horrela, asteburu honetan, jaitsierak egingo dituzte Mutrikun (Gipuzkoa) eta Belauntzan (Gipuzkoa). Delgadok bietan parte hartuko du, baina ez dira udan egingo dituen jaitsiera bakarrak izango. Uztail hasieran, Zeanurin (Bizkaia) eta Diman (Bizkaia) egingo diren probetan ere lehiatuko da, gero Galizian jokatu den Espainiako txapelketarako prestatzeko.

Udazkenean ekingo diote Zaldibarko tren geltokia eraberritzeari

ZALDIBAR • A. M.

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sarearen bitartez, Zaldibarko geltokia eraberritzen eta trenbideko pasagunea kentzen hasiko da udazkenean, ohar batean adierazi dutenaren arabera. Lanek milioi eta erdi euroko aurrekontua dute eta urtebete iraungo dutela aurreikusten du Jaurlaritzak. Bilbo eta Zalduean kaleak lotuko dituen pasabide bat eraikiko dute, eta honek eskailera finkoak eta igogailua izango ditu; Zalduea Etxebarria trenbide-pasagunea kendu egingo dute lan hauekin.

Lanek 1,5 milioi euroko aurrekontua dute eta urtebetean amaitzea aurreikusten du Jaurlaritzak

Pasabide berriak 30 metroko luzera edukiko du eta herrigunea eta Zalduean auzoa batzeko helburua du, baita N-634 errepidearen beste aldean dagoen geltokia ere. Inguruetakoko nasak berriro eta argiteria berria ipintzeko ere baliatuko dituzte lanak, ohar berean azaldukoaren arabera. Hamazortzi metroko markesina berri bat ere ipiniko dute.

Lizitaziora atera dute Berrizko hilerriko bidea egokitzeko lanen kontratua

BERRIZ • A. M.

Lizitaziora atera dute eliza eta hilerria batzen dituen 300 metro inguruko bide zatia egokitzeko lanetarako kontratua. Enpresek ekainaren 26ra arte dute proposamenak aurkezteko epea; lanek 234.970 euroko aurrekontua izango dute. Lanak uztailetik abuztura bitartean egitea aurreikusten du Berrizko Udalak. Bide zati hori egokitzea da lanen helburua, horretarako zoladura ere konponduta.

Oinezkoek eta ibilgailuek aldi berean zeharkatu ahal izateko, 4,5 metroko zabalera eman gura diote bideari

Oinezkoek eta ibilgailuek aldi berean zeharkatu ahal izateko, 4,5 metroko zabalera eman gura diote bideari. Tarte batean bidea gehitxoago zabalduko da, ibilgailu bi batera pasatzeko. Horrez gainera, ur-horniduraren, argiztapenaren, elektrizitatearen eta komunikazioen kanalizazioak ere egingo dituzte. "Bidea hobetuko da, eta segurtasuna indartu", azaldu du udalak.

Iurretan, 35 lagunentzako lekua duen ikasgela berria zabaldu dute 16 urtetik gorako ikasleentzat

Iurretako Udalak liburutegiko ikasgelaren erabiltzaileek azalduko premiei erantzun gura izan die azpiegitura berriagaz



Lokalak 90 metro koadro inguruko azalera erabilgarria du eta horietatik 65 ikasgela eremurako erabiliko dira.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Gaurtik aurrera, zabalik dago Iurretan 35 lagunentzako lekua duen ikasgela berria. 16 urtetik gorako ikasleei eman gura die zerbitzua, eta ordutegi zabala izango du: astelehenetik zapatara 09:00etatik 21:00etara, eta domeka eta jaiegunetan 10:00etatik 20:00etara. Ibarretxe kultur etxean izena eman eta gero, erabiltzaileek sarrera txartel pertsonala eta besterenezina izango dute. "Hala ere, zerbitzuan izena emateak ez du esan gura beti lekua egongo denik, erabiltzaile kopurua eskaintako plazak baino handiagoa izan daitekeelako", udal ordezkarien berbetan. Sarbideak elektronikoa izango dira eta baimenak kultur etxetik kudeatuko dira.

Lokalak 90 metro koadroko azalera erabilgarria izango du eta horietatik 65 ikasgela eremurako erabiliko dira. Gainerakoa sarrera txiki batean, komun batean eta barruko patio batean banatuko da. Sei lagunentzako bost ikas-mahai ipini dituzte eta beste mahai jarraitu bat hormaren kontra. Gune bakoitzak hargune elektronikoa izango du. Dena dela, espazio guztiak wifirako sarbidea izango duela gaineratu dute udal arduradunek.

Premiei erantzuteko

Udal arduradunek azaldu duteenez, "alde batetik, liburutegia arindu beharra ikusten genuen, eta, bestetik, liburutegiko ikasgelaren erabiltzaileek planteatzen zituzten beharrezko erantzuteko premia: ordutegi zabalagoa eta malguagoa, liburutegiaren ordutegiari lotuta ez dagoena eta egunero erabili ahal izango dena; ikasgelari diseinu "moderno" eta "dinamiko" eman diote.

Pentsiodunen bizikleta martxak Durangaldea zeharkatu du 1.080 euroko pentsioa aldarrikatuta

Eguazten goizean ailegatu ziren Berrizera, eta eskualdea goitik behera zeharkatu zuten etapa Zornotzan amaituta

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Beroa zegoen iragarrita, egundokoa. Baina eguraldi pronostikoak bete-betean asmatu zuen arren, Euskal Herriko pentsiodunen mugimendua ez zen atzean geratu. Aurreikusitako moduan, bizikleta martxa eguazten goizean ailegatu zen eskualdera, Berrizera. Bero zetozen, eguraldiagaitik eta baita

pedalei eragitean egindako aldarrikapenengaitik ere. Besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsio duin eta publikoa eskatzen zuten.

Berriztarrek Trabakuan egin zioten harrera martxari, eta herriguneraino eurekin joan ziren. Ondoren, Elorrio, Durango, Iurreta eta Zornotza zeharkatu zituzten. Herri guztietan harrera egin zie-

ten, dantzekin, bertsoekin... Kristina Mardarasek hainbat bertso kantatu zuen Durangon, eta Juan Mari Areitiok Iurretan. Herririk herri asteroko batzarretan parte hartzen duten hainbat nagusi ere omendu zituzten, esker ona adierazteko.

Askotariko aldarrikapenak

Martxaren helburuak eta aldarrikapenak jasotzen dituen manifestua irakurri zuten herririk herri. "Martxa honegaz, 1.080 euroko gutxieneko pentsioaren aldarrikapena, zerbitzu publikoen defentsa eta zainketa partekatuen lana nabarmendu gura ditugu", adierazi zuten. Horregaz batera, Gasteizko eta Iruñeko gobernuei 2023ko aurrekontuetan "1.080 euroko osagarria sartzea" eskatu zieten, "estatu-ko gobernuak gutxieneko pentsioa erabakitzen duen bitartean".



Dantzariak bizikleta martxako kideei Agurra dantzatzen, Durangoko Ezkurdi plazan.

Zornotza Europa Ekialdeko kulturen topaleku izango da Tilofest jaialdiagaz

Europa Ekialdeko dantzak, musikak eta gastronomiak bat egingo dute Zubiondon. Ekitaldiak 17:00etan hasiko dira. Jaialdia Judavca elkarteak antolatu du, udalagaz

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Errumania, Errusia, Moldavia, Bulgaria edo Georgia, berdin dio jatorriak. Guztiek izango dute lekua Zornotzan, zapatu honetan udalerrira Europa Ekialdeko kulturen topaleku izango da eta. Zornotzako Juravca elkarteak Tilofest jaialdia antolatu du eta 17:00etatik aurrera hainbat ekitaldiz girotuko du Zubiondo ingurua. Komunitate horietako dantzez, musikaz eta jantziez gozatu ahalko da. Horrez gainera, Errumaniako produktu tipikoak eskainiko dituen txosna bat ere ipiniko dute. Topaketan, Europa Ekialdeko zortzi bat elkartek parte hartuko dute.



Dozena erdi elkartek baino gehiagok parte hartuko dute Tilofest jaialdian.

Zornotzako eraso matxistak irmo salatu dituzte

Zornotzako Udalak ohar batean jakinarazi duenez, joan zen asteburuan eraso egin zioten herriko emakume bati. Mugimendu feministaren esanetan, bi dira biktimak

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA


Zornotzako Udalak jakinarazi duenez, joan zen asteburuan eraso matxista egin zioten herriko emakume bati. Udalak gaitzespen irmoa agertu du gertatutakoaren aurrean eta prestutasun osoa agertu du biktimari laguntzeko. Astelehen arratsaldean elkarretaratzea egin zuten udal plazan.

Mugimendu feministaren esanetan, bat barik bi dira asteburuko eraso matxistetako biktimak.

Talde Feministak sare soziale-tan zabaltu duenez, "domekan, 04:30ean, Larrea auzoan, gizon-eko batek emakume bati jarraitu zion. Emakumeak ihes egitea lortu zuen eta etxera sartu bezain laster udaltzaingora deitu zuen erasotzaile bat inguru horretan zebilela abisatzeko". Handik gutxira, leku beretsuan beste emakume bati ere eraso egin ziotela gaineratu du talde feministak. Elkar zaintzeko eta autodefentsa feministarako deia egin dute.



Zornotzako mugimendu feministak 2019ko azaroaren 25ean egindako mobilizazioa.



Haurren minbiziaren aurkako maratoi solidarioa, ekainaren 25ean, Elorrion

Tonbola solidarioa, kontzertuak eta paella solidarioa egongo dira, besteak beste



Ezkerretik hasita, Buruaga, Mesa eta Martínez.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainaren 25ean, minbizia duten umeen aldeko maratoi solidarioa egingo dute Elorrion, Ganondo parkean. Aspanovas elkarteari laguntzeko asmoz, Los Alakranes del Norte elkarteak egun osoko ekimena antolatu du: tonbola, kontzertuak, paella solidarioa eta umeentzako jolasak, besteak beste. "Elorriarrak eta inguruko herritarrek gonbidatzen ditugu maratoi solidario honetan parte hartu eta Aspanovasentzat eta minbizia duten haurrentzat ahalik eta dirurik

gehien batzera", azaldu du Andoni Mesa antolatzaileak. Idoia Buruaga alkateak eskerrak eman dizkio Los Alakranes del Norte taldeari egiten duten lanagaitik, eta baita herriari ere, "Elorrio oso herri solidarioa" dela gaineratuta. "Horregaitik, bertan parte hartzera deitzen dizuegu, eta espero dugu maratoi jendetsua izatea eta Aspanovasentzat diru asko lortzea", jarraitu du alkateak.

Bestalde, Aspanovas elkarteak Maria Jose Martinezek eskerrak eman dizkie Los Alakranes del Norte elkartekoei, eta baita Elorrioko Udalari ere. "Datorren dena ongi etorria da guretzat. Eta oso eskertuta gaude zuekin. Dena ematen duzue minbizia duten umeen eta euren familien alde, eta ezin gaitzke eskertuago egon", gehitu du Martinezek.

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ



Inprobisazioa edo fake news-ak?

EH BILDUK eta PODEMOSek osatutako Durangoko gobernu taldeak partida bat onartu du herriko posta bulegoa zegoen eraikina kultur etxe bihurtzeko.

Baina, beste zerbait saldu nahi diguten arren, bagenuen kultur etxea, legegintzaldi hasieran itxi zutena, Pinondo Etxea, birgaitzea oso garestia zela argudiatuta, eta orain San Agustin ospitale zaharrarekin batera zuzkidura-etxebizitzetarako erabili nahi dutena. Orain ikus dezakegunez, beste eraikin honetan nahi dute inbertitu, gaur egun antolamenduz kanpo dagoena eta babestutako multzo historiko batean izan beharko lukeen estetika-rik ez duen eraikin batean.

Gainera, Pinondo Etxea berritzea pentsatu izan balitz, ez genuen utziko durangarrentzako eraikin historiko bat dena hiltzen, horrek dakarren konnotazio emozional guztia-ekin.

Balio arkitektoniko txikia goa zuen eraikin bategatik aho-tsak altxatu ziren bere garaian, Durangon eraikin historikoak ezabatu nahi zirela ohartaraziz. Dirudienez orain ez dago arazo hori enblematikoenetako batekin.

Eta hemen ez da burugabekeria amaitzen. Plateruena Kafe Antzokia berraktibatzekeo prozesu parte-hartzailearen zain gaude oraindik, duela urtebete baino gehiagotik itxia baitago.

Eta Garai Jauregia? Titular batean irakurri genuenez Euskararen Etxearen egoitza izango zena orain beste zeregin batzuetarako erabiliko da.

Hau guztia ikusita, benetako kultur plangintzarik dagoen ala inprobisazioaren edo fake news delakoan aurrean gauden galdezen diogu geure buruari.

Durungaldea asteen

500 euroko errentagaz, berriro lehiaketara ateratu dute Atxondoko igerilekuetako

ATXONDO | Atxondoko Udalak berriro ere lehiaketa publikora ateratu igerilekuetako tabernaren kudeaketa eta ustiapena. Udaletik jakinarazi dutenez, lehenengo deialdia hutsik geratu ostean kanona 1.000 eurotik 500era jaitsi, eta berriro lehiaketara ateratzea erabaki dute.

De Norte a Sur taldeak antolatuta, Andaluziako errozio jaia ospatuko dute

ABADIÑO | Zapatuan, ekainak 18, De Norte a Sur taldekoek antolatuta, Andaluziako errozio erromeria egingo dute. Errozioko arropa koloretsuak jantzi eta jai giroa nagusi izango da 12:15etik aurrera Astolako zelaietan. Bertan, umeentzako jolasak, anaitasun bazkari herrikoia eta disko festa egongo dira, besteak beste.

Zornotzako Udalak erosketak 'zornotzanerosi.eus' atarian egitera animatu

ZORNOTZA | Zornotzako Udalak erosketak www.zornotzanerosi.eus atarian egitera animatu gura ditu herritarrek. Atariaren bitartez, herriko dendak eta ostalaritza negozioak hurbildu gura dizkiote erosleari. Izan ere, udalak dioenez, "webguneak gertuko merkataritzak eskaintzen dituen ezaugarri berak" eskaintzen dituzte: "hurbiltasuna, zerbitzu ona eta arreta zuzena".



Fundifes galdategi zaharraren azken egunak

ATXONDO | Fundifes fundizioako amiantoa erretiratu ostean, hasi dira garai bateko fundizioa botatzen. Asteon hasi dira Sprilurrekoen lanategia izandakoa eraisten. Behin instalazioak eraitsi eta lurrak garbitu ondoren, Maristak ikastetxearentzat eraikin berria eraikitzen hasiko dira. Lan hauek Sprilurrek eta Maristak ikastetxeak sinaturiko akordio baten ondorioz egingo dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Apata eta Axpeko jaiak 2022



www.atxondo.eus

*2022ko San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!*

Apatako jaiak 2022

Ekainak 26, domeka

09:00 Mendi martxa, plazatik. Amaieran, luntxa Axpeko jaietan.

Ekainak 28, martitzena

18:00 Txopo txikiaren apainketa gaztetxean.

19:00 Irudibidetik kalejira trikitilariekin. Denok plazara txopoa altxatzera. Ostein, pregoia eta kontzertu akustikoa plazan.

Ekainak 29, eguaztena

10:00 Diana txistulariekin.

12:30 Meza.

18:30 Andasto dantza taldearen dantza emanaldia frontoian.

20:00 Panoli kabareta ikuskizuna Ganso&Ciaren eskutik, plazan. Publiko guztientzat.

Ekainak 30, eguena

12:30 Hamaiketako herriko nagusientzat. Goi Begoi elkartearen (izen-ematea 676 604 788 telefonoan, ekainaren 24a baino lehenago).

19:00 Pintxo-potea txosnan.

19:30 Pilota partiduak frontoian: Maialen Garcia eta Jaione Escribano – Naroa Jaio eta Ane Diez Bengoetxea eta Azanza – Xala eta Pascual

Uztailak 1, barikua

19:00 Atxondo Harrera Herria elkartearen ipuin kontaketa, plazan.

20:00 Herri afaria plazan: bakailao txapelketa eta patata-tortilla (jai batzordeak mahai-oihalak, ogia eta kafea ipiniko ditu. Beste guztia norberak ekarri beharko du).

23:00 Laiotz taldeagaz erromeria plazan.

Uztailak 2, zapatua

11:30 Igel txapelketa. Eguerdian, kuadrillen paellak (mahaiak, mahai-oihalak, aulkiak eta kafea frontoian egongo dira eskuragarri. Ardoa txosnan erosteko aukera egongo da).

17:00 Mus txapelketa herriko tabernan.

17:00 Jolasak ume eta familientzat, plazan.

18:30 Aldats elektrotxaranga kalejiran, plazatik hasita.

22:00 Kontzertuak plazan: Jaimones, State Alerta eta Keike.

Uztailak 3, domeka

11:00-14:00 Artisau eta nekazari azoka, plazan.

13:00 Pintxo dastatzea Amillenaren eskutik, plazan.

19:00etatik aurrera, plazan: **Olinda kontzertuan, taloak eta txopoa kentzea.**

Axpeko jaiak 2022

Ekainak 23, eguena

19:00 Pintxo potea. Tartean, txapel jaurtiketa, mahai-teniseko pilota edalontzian sartzea eta ferra jaurtiketa.

22:00 Txopoa jasotzea. Ondoren, San Juan suak, berakatz zopa, txokolatea.

Ekainak 24, barikua

11:30 Meza nagusia. Ondoren, herriko jubilatuentzat luntxa.

17:00 Briska txapelketa.

19:00 Esku pilota, partidu mistoak.

23:00 Kontzertuak: Estutu, Fito Skins. Ondoren, **DJ Bull.** Bokatak txosnan salgai.

Ekainak 25, zapatua
Egun mexikarra

Goizean zehar bakailaoa pil-pilean eta patata-tortilla lehiaketa. Oharra: Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu. Bakailao lehiaketan kazola bakoitzak gutxienez zortzi xerra izan beharko ditu.

14:00 Lehiaketako plateren aurkezpen ordua. Ondoren, **herri bazkaria** frontoian. Bazkalostean, **bingoa.**

17:00 Mus txapelketaren hasiera.

21:00 Los Tenampas mariatxien ekitaldia. Afaltzeko, tako mexikarrak salduko dituzte. Mexikoko jantzi onenarentzat sari berezia.

22:30 Mexikar gaua txosnan, karaoke eta guzti: 'Hasta el amanecer no más'.

Ekainak 26, domeka

Goizean zehar, inguruko artisauen erakusketa. Saiheski pintxoak salgai.

11:30 Meza nagusia.

12:30 Atxondoko Andasto dantza taldea.

13:00 Mus txapelketaren amaiera.

17:00 Umeen jolasak. Denbora ona egiten badu ur jolasak antolatuko dira. Amaitzeko, txokolatada.

*** OHARRA:** Txapelketetan ez dira txapelak eta garaikurrak banatuko, bertoko produktuen saskiak emango dira.



akebaso
akebasorestaurante.com

Jaietan zatoz gurera,
eta ondo pasa San Pedroetan!

Txopoa altxatuta eta pregoia botata ipiniko dituzte martxan Apatako jaiak, ekainaren 28an

Panoli Kabareta, Keike taldea, pilota partiduak eta Atxondo Harrera Herria elkartearen ipuin kontaketa izango dira, besteak beste

APATAMONASTERIO • J.G.

Ohiko jai egitarauagaz ipiniko dituzte martxan Apatamonasterio-ko jaiak. Ekainaren 28an, mendi martxagaz motorrak berotuko dituzte. Jaiei ekainaren 28an eman- go diete hasiera ofiziala. 18:00etan txopo txikia jasoko dute. 19:00etan, kalejiraren ondoren, txopoa altxa- tuko dute. Gero, herriko talde edo elkarte batek pregoia botako du. Kontzertu akustikoaz gozatzeko aukera izango dute plazan.

Pilota partiduak

Bengoetxeak eta Azanzak Xala eta Pascual izango dituzte aurrez aurre ekainaren 30ean jokatu duten partiduan. Eta Maialen Garciak eta Jaione Escribanok osaturiko



2020ko jaietako irudi bat.

bikoteak Naroa Jaio eta Ane Diez izango ditu aurkari.

Jaietako ekitaldirik bereziene- tariko bat Atxondo Harrera Herria elkarteak plazan antolatuko duen ipuin kontaketa izango da. Itxaso Basauri ipuin kontalariak errefu- xiatuen errelatoan oinarrituriko kontakizun bat azalduko du.

Uztailaren 2an Mozorro Eguna ospatuko dute. Eguerdian kua- drillen paellek beteko dute fron- toi ingurua; mozorroa jantzita prestatuko dituzte paellak, zelan ez. Gauean kontzertuek plazako giroa piztuko dute. Jaimones, State Alerta eta Keike taldeak igoko dira oholtzara.

Uztailaren 3an amaituko dira jaiak, egun osoko egitarauagaz. Goizean artisau eta nekazari azoka egingo dute plazan. 13:00etan, Amillenaren eskutik, pintxo das- tatzea izango da. 19:00etan, Olinda taldearen kontzertuagaz batera, taloak banatuko dituzte eta txo- poa kenduko dute.

Los Tenampas taldea gonbidatuta Mexikar Eguna antolatu dute ekainaren 25erako Axpe auzoan

Mexikar jantzita joateko proposamena egin dute. Jantzirik onenarentzat sari berezia izango dela aurreratu dute

AXPE • J.G.

Aurten egitarau berezia antolatu dute Axpeko San Juan jaietarako. San Juan bezperan, ekainaren 23an, txopoa jasoko dute, eta, ondo- ren, San Juan suak egingo dituzte.

Amaitutakoan, berakatz zopa eta txokolata banatuko dituzte.

Mexikar Eguna

Ekainaren 24an, egun osoko egi- tarauaren ondoren, Estutu eta Fito

Skins taldeek kontzertua joko dute. Gero, DJ Bullek musika ipiniko du, goizaldera arte. Ekainaren 25erako, Mexikar Eguna antolatu dute Axpe auzoan. Erretratukola ipiniko dute mexikar jantzita doazen irudiak

hartzeko. Herri bazkariaren on- doren, bingoa eta mus txapelketa egingo dituzte. 21:00etan, Los Te- nampas mariatxi talde nafarrak kontzertua emango du. Mexikar jantzirik onenarentzat sari berezia

egongo da, eta, afaltzeko, tako mexikarrak salgai egongo dira. Txosnan mexikar gaua karaoke eta guzti egingo dute.

Jaiak ekainaren 26an amaituko dira. Goizean zehar, inguruko arti- sauen erakusketa egingo dute. Me- zaren ondoren, Atxondoko Andasto dantza taldeak erakustaldia egingo du. Eguerdian, mus txapelketa amaituko dute. Arratsalderako, umeen jolasak prestatuko dituzte. Txokolatadagaz amaituko dituzte jaiak.

BURDINAK, S.L.
EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxe: 946 583 416

BI-632 Durango

Pol. Ind. ARTIA

BI-632 Elorrio

Atxondo



Los Tenampas.

DRAXTON
ATXONDO

DRAXTON Mobility inspired **GIS**

www.draxton.com

Europako automozio balazta sektoreko osagaien ekoizpenean liderrak gara

Berrizko jaiak 2022



www.berriz.eus

**Berrizko Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez**

BERRIZ JAIAK JAIAKETA DE
BERDINTASUNEAN //

2016 **Bikam**
BERRIZKO JAIAK
BERRIZKO JAIAK

**EUSKARAZ
NAHIAGO**
euskara
nahiago

Berrizko jaiak 2018

Ekainak 28, martitzena

19:00 Pregoia eta txupinazoa: Berrizko Jai Batzordea, udaletxean. Ondoren, jaietako kartel lehiaketaren sari banaketa, udaletxean. Ostean, urteroko moduan, sardina-jana eta txosnen irekiera.

20:00 Donien Atxa eta Dantzari Dantzako azken entsegua Elizondo plazan.

22:00 'Migrare' Maduixa taldeagaz dantza.

22:45 Erruki taldearen erromeria, Elizondo plazan.

Ekainak 29, eguaztena

11:00 Margo lehiaketa umeentzat, udaletxeko lorategian. (Euria egiten badu, eskolako patio berrian)

12:00 Meza Nagusia. Ondoren, **Dantzari Dantza.**

14:00 Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean, musika kiroldegian.

18:30 'Karpaty' La Toupe Malabó taldearen zirkua eskolako patioan.

19:30 Nesken XI. Mutilen XII. eta Mistoa III. Frontenis Txapelketa. Finalak Olakueta frontoian.

20:00 Dantzari Dantza.

22:00 Merina Gris Elizondo plazan.

Ekainak 30, eguena

17:00 Tiragoma txapelketa, udaletxeko parkean. Maila ezberdinak.

19:00 Berrizko Udaleko lau t'erdiko txapelketako finalak, Olakueta frontoian.

19:30 'La Banda' Otradanza taldeagaz dantza.

22:00 Pedro Pastor y los Locos Descalzos, Elizondo plazan.

Uztailak 1, barikua

12:00 Tribiala (12 urtetik gorakoentzat) udaletxeko lorategian.

12:30-14:00 // 16:00-19:00 Umeentzako parkea: jumping, puzgarriak etab. Eskolako patioan

16:30 3*3 Saskibaloi txapelketa 9 urtetik aurrera, Berrizburu kiroldegian.

19:00 'Homiens' Markeliñe taldearen kale antzerkia, Elizondo palzan.

20:00 Batukada The McKensy's Clan Band, Elizondon.

21:00 Tortilla lehiaketa, udaletxeko lorategian.

21:30 Luhartz taldeagaz erromeria, Elizondo plazan.

23:00 Kontzertua: Etxekalte eta Oki Moki, txosnagunean.

Uztailak 2, zapatua

10:00 Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa, Elizondo plazan.

12:00 Meza Nagusia.

14:00 Paella lehiaketa, udaletxeko lorategian.

18:00 Bajadie, txosnaguneak antolatuta.

19:00 Herriko igel txapelketa. Izen-ematea: 18:30-19:00.

20:00 Dantzari Dantza entsegua, Elizondo plazan.

21:30 Garilak 26 taldeagaz erromeria, Elizondo plazan.

22:30 Suzko zezena, Elizondo plazan.

23:00 Kontzertua: Nize, Joseba Irazoki eta DJ Rosa Mari, txosnagunean.



BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behe, Berriz
T: 946 82 77 49
E: o.josu@berrizarkitektoak.com



Ibai Ondo

Sarrailgintza • Burdindegia



KOMUNITATEENTZAKO
MANTENTZE ZERBITZUA
SEGURTASUN KAMARAK

Iturriza, 10 • 946 824 489 • BERRIZ • ferreteriaibaiondo@gmail.com

**pedro
juan**
J A T E T X E A

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46



Fabrikatzaile on bat aukeratzearen garrantzia

www.tornilleria-amezuza.com

**HERROS
RIEZU S.A.**
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

Berrizko Jai Batzordeak txupinazoa jaurtita emango diote hasiera San Pedro eta Santa Isabel jaiei

Aurten nobedade bat izango da Berrizko jaietan; lehenengoz, suzko zezena egongo da; zapatuan izango da, 22:30ean

JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko etenaren ondoren, bueltan dira Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak. Ekainaren 28an Berrizko Jai Batzordeak pregoia irakurri eta txupinazoa botata ekingo diete bost egunez herria kolorez eta pozez beteko duten jaiei. 19:00etan txupinazoa jaurtiko dute, gero sardina-jana egingo dute eta txosnak zabalduko dituzte. 20:00etan, ohitura den lez, Donien Atxa jaso eta Dantzari Dantzako azken entsegua egingo dute, Elizondo plazan.

Pandemia aurretik lez, aurten ere ez dira faltako San Pedro eta Santa Isabel jaietako ekitaldirik jendetsuenak. Uztailaren 2an, zapatua, paella lehiaketa egingo dute, 14:00etan. Lehiaketa honek



Txupinazoaren ondoren sardina-jana egiten dute Berrizen.

ehunka lagun batzen ditu udaletxeko lorategian. Arratsaldean, 18:00 aldera, jaitsiera egingo dute, txosnaguneak antolatuta. Gazteek antolaturiko ekitaldi honek kolore berezia ematen dio herriari.

Ekitaldi horiez gainera, adin eta gustu guztietarako egitaraua antolatu dute Berrizko Jai Batzordeko kideek. Herriko dantzarien saioak, umeentzako jolasak, lehiaketak eta musika kontzertuak ez dira faltako 2022ko Berrizko jaietan. Musikari dagokionez, Etxekalte, Oki Moki, Joseba Irazoki, Erruki, Garilak 26 eta Luhartz taldeen kontzertuak egongo dira, besteak beste.

Suzko zezena

Bestalde, aurten nobedade bat izango da Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaietan. Lehenengoz, suzko zezena egongo da. Ikuskitzun hau adin guztientzat da ikusgarria. Uztailaren 2an izango da, 22:30ean, Elizondo plazan.

'Migrare', 'La Banda' eta 'Homien's' kale ikuskizunak besteak beste, Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaietan

Berriz antzerki ikuskizunen erreferente izaten da urtean zehar; jaietan ere horrela izango da

KALE IKUSKIZUNAK • M. ZUAZUBISKAR

Urte osoan zehar antzerki emaldi eta ikuskizunetaz beterik egoten dira Berriz eta Berrizko Kultur Etxea, eta jaietan ez da gutxiago izango. Aurten ere kale ikuskizunak nagusi izango dira San Pedro eta Santa Isabel jaietan.

Ekainaren 28an, esaterako, Maduixa taldeak *Migrare* kale ikuskizuna eskainiko du, 22:00etan. 2004an sortu zenetik, Maduixa Cía konpainiak areto-ko eta kaleko arte-sorkuntzak egiten ditu, publiko guztientzat. Berrizen eskainiko duten *Migrare*

dantza ikuskizunagaz, emakume indartsuen, ausarten eta batez ere erresilienteen borroka taularatu gura dute.

'Migrare' dantza ikuskizunagaz emakume erresilienteen borroka taularatu gura dute

Bestalde, ekainaren 29an, La Toupe Malabó taldeak *Karpaty* zirku ikuskizuna eskainiko du,

eskolako patioan, 18:30ean; eta ekainaren 30ean, Otradanza taldeak *La Banda* dantza ikuskizuna egingo du, 19:30ean.

Barikuan, uztailak 1, Markeliñe konpainia zornotzarrak *Homien's* kale antzerkia emango du. 19:00etan izango da, Elizondo plazan.

Jai batzordetik esan dutenez, eguraldia edo baldintza teknikoak direla eta, ekitaldiak lekuz aldatu ditzakete. Kale antzerkietan eta bestelako ekitaldietan gurasoek umeen arduraz izan beharko dutela adierazi dute.



Maduixa konpainiako antzezleak. MADUIXACREATIONS

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

VCG

Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A.

decoletaie

Eitua Industrialdea 20 · 48240 Berriz (Bizkaia)

+34 946 824 012

info@vcg-decoletaie.com

www.vcg-decoletaie.com

“Abesti berriak aurrekoaren jarraipena dira, baina konplexutasun handiagoa nabari da”

Nize taldeak kontzertua emango du Berrizko jaietan, Joseba Irazoki eta DJ Rosa Mari ere batuko dituen jaialdian



Intza, Andrea eta Niko 2018an elkartu ziren, eta orduan sortu zuten Nize taldea.

MUSIKA • JOSEBA DERTEANO

Nize taldea Andrea gitarra donostiarra, Niko baxu-jotzaile artzentalestarrak eta Intza bateria-jotzaile azkoitiarrak osatzen dute. 2018an elkartu ziren eta 2020an euren ibilideko lehenengo lana kaleratu zuten, *Ezin* izenekoa. Soinu Berriak lehiaketan irabazitako sari bati eskerrak, lau abestigaz osaturiko EP bat ere onduta dute gaur egun, eta martxoan lehenengo abestia aurreratu zuten, bideoklip baten bitartez. Zuzenean ikusi gura dituenak Berrizko jaietan du aukera, uztailaren 2an. “Ilusioz eta motibatuta” itxaroten duten zuzeneko delatza aldu du Intzak.

Zelan sortu zen Nize taldea?

Arte Ederrak ikasten genbiltzala, musikalki antzerako gustuak genituela ikusi genuen. Elkartu eta abestiak sortzen hasi ginen.

Zer musika talde izan dira zuen influentziak?

Sonic Youth, adibidez, edo Warpaint. Bilbo inguruko panorama musikala ere aipatuko nuke, gertu harrapatzen gaituelako.

Eta bateria-jotzaile moduan zeintzuk izan dira zure erreferenteak?

Ez daukat bereziki erreferente moduan izan dudana bateria-jotzaile, baina hainbat gustatzen zaizkit. Adibidez, Savages eta Warpaint taldeetakoak. Bate-

ria-jotzaile batengan fijatu baino gehiago, asko entzun eta iturri askotatik edaten dut. Musika en-

Orain bi hilabete disko berriko kanta baten bideoklipa ateratu genuen, eta orain beste bideoklip bat prestatu nahi dugu

tzutean bateria lanean ipintzen dut arreta, batez ere nire logikatik irteten diren erritmoetan; horiek ulertzen saiatzen naiz.

Zelakoa da sormen prozesua? Musikari nagusi bat dago ala abestiak hiruren ekarpenaren ondorio dira?

Hiruron artean egiten dugu. Inprobisatzen gabiltzala, interesgarriak iruditzen zaizkigun erritmoak grabatu egiten ditugu, eta, gero, zati desberdinak abesti berean batzen ditugu. Edo Andrea gitarra melodia berri batekin badator, horren inguruan sortzen saiatzen gara. Ondoren, melodia horren barruan sartzen dugu letra.

2020an, zuen lehenengo diskoa kaleratu zenuten. Bigarren diskoa buruan darabilzue ala oraindino goizegi da?

Lau kantako bigarren EP bat grabatuta dugu. Bilbao BBK Soinu Berriak lehiaketan sari bat irabazi genuen eta hortik dator. Oraindik ez dugu kaleratze datarik. Orain bi hilabete disko berri honetako kanta baten bideoklipa ateratu genuen, eta orain beste bideoklip bat prestatu nahi dugu. Estrategia horrekin gabiltza, kantak banan-banan ematen, bakoitza bere formarekin... dena batera ateratu beharrean.

Jaiak dira eta seguru giro ederra egongo dela. Ilusionatuta eta motibatuta gaude gure onena emateko

Abesti berriek aurrekoen ildotik jarraitzen dute ala beste norabide bat hartu duzue?

Abesti berriak ildo beretik doaz, bai, aurretik egindakoaren jarraipen bat dira, baina konplexutasun handiagoa nabari da; gutako bakoitzaren erritmoen lanketan, gero horiek taldean bateratzerako orduan...

Pozik zaudete zuzenekoetan jendearen aldetik jasotzen duzun erantzunagaz?

Bai, pozik gaude. Zuzeneko ematen duzun tokiaren arabera erantzuna aldatu egiten da. Adibidez, Aste Santuan Bilboko Kafe Antzokian kontzertu bat eman eta *feedback* itzela jaso genuen. Beti Bilbo inguruan mugitzen garenez, azkenean badago publiko bat ezagutu egiten gaituena, eta antzokiko kontzertu horretan berotasun handia sentitu genuen.

Zer esan zenezake Berrizko kontzertuari buruz? Kontzertuak plazan izanda, giroa aldatu egiten da?

Plazak aretoak baino hotzagoak izaten dira normalean, zailagoa da plaza bat betetzea, baina jaiak dira eta seguru giro ederra egongo dela. Gainera, berriztar batzuk ezagutzen ditut. Gu ilusionatuta eta motibatuta gaude gure onena emateko.



Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

www.keinuoptometrizentroa.com



Zengotitabengoa kalea,
BERRIZ 946 824 215

Produktu ekologikoen
eskaintza



PINTURA DEKORATIBOA
ETA INDUSTRIALA




GAIZKA FERNANDEZ

699 009 050

GAIZKA.FER78@GMAIL.COM




LABIRINTOA



DOMINOA

Beheko borobilean dagoen zenbakia topatzeko egin dominoko eragiketak kalkulagailua erabili barik.

Hasiera



ZEIN DATOR BAT

Irudi handian arrainen itzal batzuk daude.
Beheko arrainetatik zeintzuk datoz bat itzalekin?





Dare + Unfix + Norkzer?!

MUSIKA **ZALDIBAR :: Ekainak 17**

Dare hardcore doinuak AEBetatik

Hardcore doinuen zaleentzat beste gualdi bat antolatu dute Zaldibarko gaztetxean; Gari Rock elkartegaz batera antolatu dituzte kontzertuak. AEBetako Orange Countytik (Kalifornia) datorren hardcore laukotea da Dare. Hogeita bost eguneko bira antolatu dute Europan, ekain eta uztaileko; Alemania, Austria, Frantzia, Herrialde Katalanak, Espainia, Erresuma Batua, Danimarka, Hungaria, Txekiako Errepublikak, eta Herbehereak zapalduko dituzte, besteak beste, eta tartean Zaldibarko gaztetxea bisitatuko dute. *Against*

all odds diskoa aurkezteko biran murgidurik dago laukotea eta dozenaka kontzertu eman dituzte aurtien AEBetan. Etxeko Unfix taldeagaz batera joko du Darek. Unfix Worth It talde berriztarreko kideetarikoz batzuek osatzen dute, besteak beste, eta hardcore bizkorra da eurenak. Norkzer?! talde gipuzkoarrak zabalduko du gaua; Orreaga 778, Dictadura eta Brutal Calling taldeetako kideek osatzen dute boskote hau. 20:30ean hasiko dira kontzertuak eta sarrera sei euroan erosi ahal da, momentuan bertan.

Ekainaren 17an

IURRETA antzerkia
‘Plaza abordaia’ (Deabrukeriak), 18:30ean, Askondon.
‘Auskalo’ (Eriz Magoa), 20:00etan, Dantzari plazan.

ZALDIBAR antzerkia
‘Nao, Now, Nau’ (Barré CIA), 20:00etan, udaletxeko plazan.

Ekainaren 17tik 19ra bitartean

DURANGO azoka
Tabirra garagardo azoka, Landako Gunean. Gaur 19:00etatik gauerdia, bihar 12:00etatik gauerdia, eta domekan 12:00etatik 18:00etara.

Ekainaren 18an

DURANGO azoka
Naiz Marketen azoka, 10:30etik 20:30era, Andra Mariko elizpean.
Musika zuzenean, 19:30etik 20:30era.

IURRETA bertsoak
Euskal Herriko Eskolartekoaren 34. edizioa, 11:30ean, frontoian.

IURRETA antzerkia
‘Yes, we art’ (Ameztu), 18:30ean, Dantzari plazan.

‘Oh-Opera’ (Tasco zirkua), 20:00etan, Askondon.

ZORNOTZA musika
‘Musikaren barrenean bidaia’ (ZMB eta Zubiaur musika eskola), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Ekainaren 19an

ABADIÑO San Antonio Errepetizio eguna, Urkiolan. Nekazaritza azoka, 10:00etatik 15:00etara.
Meza nagusia
Leioako abesbatzak lagunduta, 12:00etan.
Herri kirolak: 2022ko Euskadiko Txapelketa.
Gizonezko kintopekoen harri-jasotzea (Beñat Ibañez, Iraitz Arruti eta Imanol Royo) eta **emakumezkoen harri-jasotzea** (Karmele Gisasola, Lucia Orbe, Marina Blanco, Patricia Martin, Udane Ostolaza, Naiara Zumeta eta Aroa Sanchez).
Eingo taldeagaz dantza eta abestiak, 16:00etan hasita.

DURANGO ekitaldia
Esku Hutsik elkarteko kideentzako I. Topaketa, Zuhatzola parkean.
Ongietorria eta aureskua, 11:30ean.
Berba egiteko eta entzuteko tartean, 12:00etan.
Elkartekide ez direnei harrera, 13:00ean.

Poesia eta idatzien irakurketa, 13:30ean.
Bazkaria, 14:00etan.
Gure txikitxoei omenaldia, 15:00etan.

DURANGO sanpedroak
Tabira mendi martxa, 08:00etan, Tabira auzoan.
Lasterketa, 09:30etan.
Eixu Artisau Azoka, 11:00etan.

DURANGO azoka
Naiz Marketen azoka, 10:30etik 14:30era, Andra Mariko elizpean.
Musika zuzenean, 11:30etik 12:30era.

IURRETA antzerkia
‘Por hacer un favor’ (Trapu Zaharra), 13:30ean, Askondon.

MALLABIA/ BERRIZ bisita
Oizko Itzurigana-Probazelaiburu multzo megalitikoan bisita gidatua, 10:30ean. Berrizko plazatik 09:00etan irtengo dira, eta Mallabiko Zengotita auzoko ermitatik 09:30ean. Doako autobus zerbitzua ipiniko dute. Aurrez izena eman behar da 94 682 40 36 telefono zenbakira deituta.

Ekainaren 20an

BERRIZ tailerra
‘Lesbianismoa eta bisexualitatea. Badute zerikusirik nirekin?’

tailerra, 18:00etan, Kultur Etxean. Dinamizatzailea: Udane Herfer (Histeria). Euskaraz. Izena emateko, ekainaren 17ra arte.

Ekainaren 23an

DURANGO antzerkia
‘Meri, Mari eta Lari’ (Maria Urcelay eta Yogurinha Borova), 18:30ean, Otamotzena parkean.

MALLABIA sanjuanak
Txopoa jasotzea, Ikurrina ipintzea eta txupinazoa, 20:00etan, Goita auzoan.
Sua piztuko dute, 21:00etan.

IURRETA San Juan Bizkaiko gaiteroekin jauziak, 19:00etan.
San Migel jaietako kartelaren aukeraketa, 19:30etik 20:00etara.
Afari herrikoia, 20:00etan, plazan.
Erromeria Bada Giro taldeagaz, 21:30ean. Iluntzean sua piztuko da.

Ekainaren 24an

DURANGO sanpedroak
Txistulariak, 09:00etan, Tabira auzoan.
Txupinazoa, 19:00etan.
Tortilla jana, 20:00etan.
Kontzertuak, 21:00etan:
Parkatu + Ainke + Banda Baffana + Peio eta Itsua + Sigeruban & Pula Gzon.

Ekainaren 25ean

ABADIÑO ikastaroa
Aire libreko akuarela ikastaroa Urkiolan, 09:30ean hasita, lau orduz. Lekua mugatua da eta aurrez izena eman behar da *irribarrez.tirak@gmail.com* helbidera idatzita. Doakoa da.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Jurassic World. Dominion**
barikua 17: 19:30
zapateria 18: 17:00 / 20:00
domeka 19: 17:00 / 20:00
astelehena 20: 18:30
martitzena 21: 19:00
eguzartena 22: 19:00

• **La brigada de la cocina**
barikua 17: 19:30
zapateria 18: 20:00
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 18:00 / 20:15
martitzena 21: 19:00
eguzartena 22: 19:00

• **Lightyear**
barikua 17: 19:00
zapateria 18: 17:30 / 20:00
domeka 19: 17:30 / 20:00
astelehena 20: 18:00 / 20:15
martitzena 21: 19:30
eguzartena 22: 19:30

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Red Rocket**
astelehena 20: 20:15

Dozena bat disko jartzaileraren parte hartzeagaz Durangoko I. Moonstomping jaialdia egingo dute

KSKA kolektiboak antolatuta, disko jartzaileen biniloen musika egun osoan zehar egongo da entzungai Alde Zaharrean

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Durangaldeko Kaleko Soinuak Kaleak Astintzen kolektiboak egitasmo berritzailea proposatu du. Durangoko Alde Zaharreko hiru gunetan disko jartzaileak egongo dira, kolektibokoak zein gonbidatuak. Hamar orduz arituko dira musika ipintzen, etenik barik. Ez da kolektiboak antolatuturiko lehenengo emanaldia, baina luzeena izango da, eta baita parte hartzaileena ere. Guztira, hamar disko jartzaile egongo dira euren binilo eta disko-jogailuekin. "Reggaean Jarrai diskoa kale-ratzeko eta zabaltzeko egindako lanaren ondoren, hainbat talde, kolektibo eta selektorren arteko lotura estutu da eta horri etekina atera gura genion", azaldu dute KSKAko kideak. Skinhead reggae, 2 tone edota ska doinuak nagusitzen dira euren saioetan. Hala ere, oraingoan beste era bateko doinuak ere entzungo dira Durangoko Alde Zaharreko kaleetan. "Mugimendu honek hainbat azpikultura hartzen du



KSKAko kideak.

kontuan, eta guk ere aniztasun hori islatu gura dugu", esan dute. Esaterako, erritmo karibearrak entzungo dira goizeko lehenengo saioetan. "Alternatiba bat eskaintzea da gure helburua. Iruditzen zaigu antzerako musika ipintzen dela leku guztietan, eta gure proposamena interesgarriagoa iruditzen zaigu. Biniloan izateak

kuriositatea pizten du, gainera", gaineratu dute.

Sorginolaren falta

Moonstomping jaialdia 2020ko ekainean egitea zen KSKAren hasierako helburua. Baina, pandemiaren eraginez, urte bi atzeratu dute. Mahai-inguru bat, fanzine erakusketa bat eta kontzertuak

egitea zen hasierako asmoa, baina, gerora, egitaraua moldatu dute Sorginolaren eraisketa dela eta. "Pena bat da Sorginolaren moduko gune bat ezin erabiltzea; horixe litzateke gunerik naturalena. Baina musika kalera ateratzeko gogoia ere bagenuen", nabarmendu dute kolektiboko kideak.

I. Durango Moonstomping

12:00-15:00

Sonidero Galerna (Karibbean sounds) eta Hija del Nopal (Cotorreo tropical) Mesoi barrian, Mikeldin eta Txalapartan

15:00-18:00

KSKA selektorrak, Head, Kiratsa, Borrokata, Bekosue eta Joi! Intxaurre elkartean (Ska, Rocksteady, Skinhead reggae, 2tone eta punkska).

18:00-22:00

Miss Waymon (ska, rocksteady eta skinhead reggae), Apatxe Sound (punk reggae party), Tiki Boom (R&R eta Caribbean rhythms) eta Mike Dekker (Ska eta Reggae), Arkarazo, Txantonesa, Gure Toki eta Bikandi tabernetan.

Iurretako Kalez kale antzerki jaialdia ohiko formatura bueltatuko da

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

2020an kale egin, eta 2021ean edizio "moldatua" egin behar izan eta gero, berriro "ohiko formaturan" egingo dute Kalez kale jaialdia Iurretan. Gaur izango dira lehenengo emanaldi biak: Deabrukeriak konpainiaren *Plaza abordaia* eta Eriz magoaren *Auskalo*; Askondon eta Dantzarin izango dira, hurrenez hurren. "Garrantzitsua da berriro ere ikusle eta antzezle arteko interakzio hori berreskuratzea, berriro ere zutik eta musukorik barik gozatu

ahal izatea emanaldiez", nabarmendu du Deabru Beltzak konpainiako kide eta Kalez kaleko zuzendari artistikoa den Oscar Castaño 'Garbitxu'-k. Kalez kalek 16. edizioa du aurtengoa eta Pilar Jimenez kultur arloko ardura-dunak eta Iñaki Totorikaguena alkateak nabarmendu dute egitasmoa guztiz errotuta dagoela Iurretan. "Urteotan 90 konpainia igaro dira jaialditik, eta, guztira, 500 aktorek baino gehiagok eta milaka zalek parte hartu dute", gaineratu dute.

Kalez kale

Ekainak 17, barikua

- 18:30ean, Deabrukeriak antzerki taldearen 'Plaza abordaia', Askondon.
- 20:00etan, Eriz magoaren 'Auskalo', Dantzarin.

Ekainak 18, zapatua

- 18:30ean, Ameztoren 'Yes we art', Dantzarin.
- 20:00etan, Tosco zirkuaren 'Oh opera', Askondon.

Ekainak 19, domeka

- 13:30ean, Trapu Zaharraren 'Por hacer un favor', Askondon.



Plaza abordaia!

A. Urreta podólogo

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxes: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



Carnage konpainiaren 'Les tapas' ikuskizuna.

Uda Giro programak 17 kultur ikuskizun aterako ditu Durangoko kaleetara

Ekainetik irailera hamazazpi kultur ikuskizunez gozatu ahalko da parke eta kaleetan.

UDA GIRO • EKAITZ HERRERA
Durangoko Udalak Uda Giro kultur zikloa aurkeztu du aste honetan. Aurtengo edizioa “anitza” izango da, Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko koordinatzailearen berbetan. “Anitza eta kalitatezkoa. Harribitxi txikiekin osaturiko egitaraua, eta hemen kultur sorkuntzaren isla ere baduena”, adierazi zuen aurkezpenean. Arrazolak Carnage konpainia frantsesaren *Les Tapas* ikuskizuna, Elene Carreto dantzari durangarraren *Topatuko garen leku horretan* obra, Miren Agur Meaberen eta Dana Moyaren *Zerumugan* poesia musikatua eta

Javier Garcia mimo zaldibartarraren *Nao-Now-Nau* ikuskizuna azpimarratu ditu, besteak beste. Durangoko Insomnia taldearen kontzertua ere nabarmendu dute: “Hurbileko profesionalei leku bat bilatu gura izan diegu”.

Aretokoa, kalean

Ikuskizunak kalean egingo dituzte, betiere eguraldiak lagunduz gero. Otamotzena parkea, Aurora Abasolo parkea, Tabirako zelaiak zein Ezkurdi parkea izango dira kultur ikuskizunen eszenatokiak. Euria eginez gero, ikuskizunak barrualdeetara era-

mango dituzte; Landako Gunera, besteak beste. Julián Ríos alkatordeak eta Ane Abanzabalegi kultura zinegotziak herritarrak deitu dituzte kulturaz “mugarik barik” gozatzerako. “Badirudi aurten ez dugula horrelako mugarik bizi beharko eta kulturaz gozatu ahal izango dugula inolako eragozpenik barik. Kulturaren aldeko oso apustu garrantzitsua egiten jarraitzen dugu eta apustu hori hainbat ekimenetan islatzen da. Uda Giron, musika, antzerkia eta dantza uztartuko dituen kultur programa anitza izango da”, nabarmendu dute.

Musikaire jaialdiaren egitaraua aurkeztu dute

Musikaire ohiko formatuagaz bueltatuko da; emanaldiak Lariz jauregian, Ganondo parkean eta plazan izango dira

MUSIKAIRE • ARITZ MALDONADO

Iaz egoerari moldatuta bueltatu ostean, Elorrioko Musikaire jaialdia ohiko formatuagaz itzuliko da aurten. Julene Lazkano kultura zinegotziak azpimarratu du kultura adierazpen desberdinetako emanaldiak egongo direla, Euskal Herrikoak zein nazioarteko panoramakoak. Besteak beste, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Kuikui*, Tcheka musikari caboverdetarra, eta Ines Osinagaren, Olatz Salvadorren eta Lore Argarateren

#mauriziak ezduinorhil ikuskitzen ahalko dira Elorrion. “Urte bian pandemiak kultura modu larrian kaltetu ostean, uda honetan kulturaren aldeko apustua erakusten jarraitzen dugu. Zerbait hamarkadatan gugaz dagoen jaialdia da Musikaire eta gure kaleak jai giroz beteko dituen berriro”, azaldu du Idoia Buruaga alkateak. Uztailaren 2an izango da lehenengo emanaldia: Yllana konpainiaren *Trash* dantza ikuskizuna egongo da plazan.



Lorea Argarate, ines Osinaga eta Olatz Salvador.

Gai librean

Isilaraziak VIII

Inguruan dabilen udako aire beroa izango da akaso, baina gaurkoan ezohiko isilarazi batzuei buruz hitz egin nahiko nuke. Izan ere, isilaraziak izan diren emakumeak ez dira bakarrik iraganean egon eta gutxiago kultura arloan. Gaur egun ere asko daude eta bizitzako esparru guztietan, tamalez.

Uda iristen den bakoitzean iragarki berdinak ikusten ditugu behin eta berri. Beti gazte eta ederrak paraje zoragarrietan, beraien larruazal beltzarana, irribarre beti aurpegietan eta gorputz perfektuekin.

Horrelakoak ikusten ditudan bakoitzean gaizki sentitzen naiz, eta ziur ni bezala beste hainbeste pertsona. Izan ere, egoera horretan ez daudenekin ezin dute uda bizi? Zer gertatzen da bidaiatu ezin dutenekin, udan lanean daudene-



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

Zer gertatzen da bidaiatu ezin dutenekin, udan lanean daudenekin edo bidaiatzeko aukerarik ez dutenekin?

Irakurri berri dut elikadura portaeraren asaldurak %25 igotzen direla urteko sasoi honetan.

kin edo bidaiatzeko posibilitaterik ez dutenekin, adibidez? Edo zer gertatzen da kanon zorrotz batzuen barruan sailkatu ezin diren gorputzekin? Iragarkiak ikusita ematen du ez dutela udaz gozatzeko aukerarik. Batzuentzat agian uda depresiorako momentua izan daiteke, eta beraien aurpegian ez da irribarre zuri eta perfekturik age-

riko, iragarkietako modeloen kasuan bezala.

Iragarkietan inoiz agertuko ez garen horiek guztiak gara isilaraziak. Emakume nahiz gizon. Ez garelako erre-presentatuak sentitzen. Irakurri berri dut elikadura-portaeraren asaldurak %25 igotzen direla urteko sasoi honetan. Datua ikaragarria iruditzen zait. Gaixotasun mentalei buruz asko hitz egiten da azkenaldian, zorionez, eta hau beste bat da. Horrelako iragarkiek ekartzen dituzten ondorioetako bat da.

Eta ez dira bakarrik iragarkiak, egunero esku artean dugun mugikorrean Instagrameko aplikazioan sartzen garen bakoitzean mezu berdina helarazten digute. Uda gorputz perfektuak munduko txokorik eder eta eksklusiboenetan erakusteko garaia dela ematen du. Hortik kanporako guztia isilarazia ezezik ikusezin ere bihurtu da.

“Abuztuan Hego Karolinara noa, ikastera eta hango taldean entrenatzera”

Ainhoa Colino, Euskadiko ibiltaririk onena, "ilusionatuta eta motibatuta" dago bere bizitzako etapa berriaren aurrean

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Ainhoa Colinok beti gura izan du atzerrian ikasi, eta ametsa errealtate bihurtu zaio. Ez hori bakarrik, Columbia College unibertsitateko atletismo taldera batuko da eta bere kirolik gustukoena, ibilketa, orain arte ez bezala entrenatzeko aukera izango du. Izan ere, Euskadiko txapeldunak apenas du aurkaririk inguruotan, kirol arrotza delako eta jende gutxik praktikatzen duelako.

Zelan zaletu zinen martxa-probara?

Umetan korrika egiten nuen, baina egunero egitea astuna egiten zitzaidan. Behin, lagun bategaz korrika nenbilela, taldekide bat martxa-proban ikusi nuen. Orduan ez nekien zer zen ere. Nekatuta geunden eta beste zeozer probatu gura genuen. Nire laguna ez, baina ni engantxatu egin ninduen. Ez dakit azaltzen, martxagaz lotura berezia dut.

Orain asteburu bi, Euskadiko txapelketa irabazi zenuen beste behin, Durangoko atletismo pistan. Hiru ibiltari egon zineten: emakumezko bi eta gizonezko bakarra.

Hemen ez dago jende askorik, eta maila handirik ere ez. Abantaila da Euskadiko txapelketa irabazteko, baina, gero, Espainiakoa zenbat jende eta zelako maila duten ikustean...

Desabantaila bihurtzen da.

Hori da. Bizkaian, 5 eta 10 kilometroko errekorrak nireak dira: 26.19 eta 56.21, hurrenez hurren. Ba, Espainiakoa, ni baino neska gazteagoek 22 minutuan egiten dituzte 5 kilometro. Abiadan pasatzen dira nire albotik. Harrigarria da. Baina, tira, beste batzuk nire

antzera dabilta eta haien aurretik egitea izaten da nire helburua. Azken batean, estatuko onenak ibiltzen dira eta eurekin aritzea bakarrik harro egoteko modukoa da.

Euskadin hain ibiltari gutxi egonda, denok elkar ezagutuko duzue.

Bai, Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan betikoak batzen gara, lau edo bost. Bizkaiko klubetan artekoan gertatzen dena kurioa izaten da. Martxa-probak puntuak ematen dizkio taldeari, baina klub askotan ez dago ibiltaririk eta horretan sekula ibili bakoak ipintzen dituzte.

Euskadin gaur egun kronometroa da zure aurkari nagusia eta hobetzera motibatzen zaituena?

Bai eta ez. Nire markak hobetzeko entrenatzen naiz, motibazio bat da, baina egiten duzunaz gozatu ezik ez du ezertarako ere balio. Niretzat gozatzea da garrantzitsua. Lasterketan ez naiz kronometroari asko begiratzekoa. Urduritu egiten nau eta, mesede barik, kalte gehiago egiten dit.

Estatuan, non da indartsua martxa-proba?

Madrilan eta Katalunian talde indartsu bana dago. Murtzia eta Andaluzia inguruan ere badu indarra.

Gustatuko litzazuke talde horietariko batera edo errendimendu handiko zentzoren batera joatea?

Oso ondo egongo litzateke. Euskadiko txapeldun izandako tolosar bat Andaluziara joan da eta asko hobetu du.

Beharbada egunen batean zuri ere sortuko zaizu kanpora joateko aukera.



Ainhoa Colino Biella

Bidezabal klubeko ibiltaria
DURANGO | 2004

Bueno, abuztuan Ameriketako Estatu Batuetara noa.

A bai? Kontaiguzu. Nora joateko asmoa duzu?

AEBko Hego Karolina estatuko Columbia College unibertsitatara noa. Beti ikasi gura izan dut kanpoan. Bekak aztertu eta joateko aukera ikusi nuen. Unibertsitateagaz hartu-emanetan ipini, eta, azkenean, kirol beka eta beka akademikoa eman zizkidaten. Ikastera eta entrenatzera noa. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako ikasketak egingo ditut, eta unibertsitateko ibilketa taldean entrenatuko naiz. Martxa eta krosa egingo ditut, biak. Entrenatzailea munduko txapelketan ibilitakoa da. Beste mundu bat izango da eta oso pozik eta oso motibatuta nago.



Ainhoa Colino, eskuman, Madrilgo ibilketa-probako nazioarteko sari nagusian.

Atxondoko Udal Igerilekua




2022 DENBORALDIA

Ekainaren 24tik
irailaren 8ra
(biak barne).

Ordutegia:
11:00-20:00

SARRERA

- 4 urtera arteko umeak **debalde**
- 5-17 urte bitartekoak **3,50€**
- 18tik gorakoak **4,50€**



Elorrioko kickboxing eta muay thai openak 200 bat parte hartzaile batuko ditu zapatuan

Adin guztietako 100 borrokaldi baino gehiago egongo dira Hilario Azkarate pikotalekuan; lau borrokalarigaz torneo bat ere antolatu dute, gerriko bat egongo da jokoan eta Aitor Romero Perez 19 urteko garaitarra izango da protagonistetariko bat

ARTE MARTZIALAK • JOSEBA DERTEANO

"Kickboxinga topera dago aspal-dian". IndarXsport klubeko Dani Nuñez pozik dago Elorrioko kickboxing eta muay thai openeko izen-ematea arrakastatsua izan delako. 8 urtetik master mailara arteko 200 bat lagun batuko ditu zapatuan, 10:00etatik aurrera, Hilario Azkarate pilotalekuan egingo den txapelketan. Sarrera doakoa da.

Arte martzialek geroago eta interes handiagoa pizten dutela dio Nuñezek: "Elorrioko opena udalak berak proposatuta antolatu dugu. Hurrengoa Durangon egin gura dugu, pilotalekua eraberritzen denean. Eskualdeko beste udalerri bat ere ipini da gugaz hartu-emanetan. Herrian ez dute arte martzialen klubik, baina interesa dute txapelketa bat antolatzeko. Udalak konturatzen hasi dira kickboxing openek kanpoko jende asko erakar-tzen dutela".

2020an, IndarXsport eta Laureano Lara Team elkarteek eta beste eragile batzuek antzerako opena antolatu zuten Berrizen. Antzerakoa, baina ez berdina. Orduan, tatami gainekoa bakarrik izan zen; oraingoan, ring gainean ere arituko dira.

Opena borrokalaria amateurrei bideratuta dago. "Euskadiko txapel-



Tatamikoak ez ezik, ringeko borrokaldiak ere ikusi ahalko dira Elorrian. RODRIGO M.U.

ketak eta antzerakoak esperientzia gogorregiak izan daitezke hasiberrientzat. Horregaitik dira garrantzitsuak horrelako openak. Euren mailakoen kontra aritzen dira eta gehiago gozatzen dute. Tarteko urrats bat da", dio Nuñezek. Izan ere, openean ezin du parte hartu borrokaldi profesional bi baino gehiago izan duen inork.

Torneoa Aitor Romerogaz

Openetik kanpora, torneo bat ere antolatuko dute lau borrokalaria-gaz, K1modalitatean eta 91 kilora arteko pisuan. Borrokalarietariko bat Laureano Fight team taldeko Aitor Romero (Garai, 2003) da. Lander Olazaran sestaoarraren aurka lehiatuko da finalera sartzeko. Beste finalerdia Sergio Martins

errioxarraren eta Alejandro Cerezo bilbotarraren artekoa da. Romero denetan gazteena eta esperientziarik gutxien duena da, baina apurka maila tekniko "ikusgarria" hartzen dabilela uste du Nuñezek. "Sparring asko egin du profesionalekin", zehaztu du. Torneoa irabazten duenak Custon Fighter gerrikoa eramango du etxera.

Palan eta esku pilotan Udaberri Txapelketako finalak jokatu dituzte zapatuan

PILOTA • J.D.

Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekua obretan dagoenez, Durango Pelotazale Klubak aurren ez du Peter-en oroimenezko txapelketa antolatuko. Horren ordez, Udaberri Txapelketa antolatu dute, lehenengoz. San Faustoko pilotalekuan dabilta jokatzeko, hango ezaugarrieta-ra moldatuta. Kanporaketak hile bian jokatu dituzte, palan zein esku pilotan, eta finalak zapatuan jokatu dira, hilak 18, 17:00etan. Buruz buruko finala Urrutikoetxearen eta Zarrabeitiaren artean jokatu dute. Ondoren, binakako finala jokatu dute palan, Arriaga-Fernandez eta Axkoeta-Jaio bikoteek.

Lehenengo Udaberri Txapelketak oso erantzun ona izan duela eta hurrengo urteetan errepikatzeke asmoa dutela adierazi dute pilota klubeko kideek.

Eskolako txapelketa

Klub berak antolatuta, Eskola Txapelketako finalak ere jokatu dituzte San Faustoko pilotalekuan. Zapatuan, 10:30ean hasiko dira. Esku pilotan binakako hiru final eta buruz buruko bat jokatu dira. Buruz buruko bat beste final bat ere egongo da, pala modalitatean.

Jokaldia

Gozatu bideaz, Morga

Gogoan daukat pilotari profesiona-lekin entrenamenduetatik kanpora izan nuen lehen kontaktua. 2007ko ekainean izan zen, Arnedilloko bai-nuetxean, Asegarce enpresak urtero egin ohi zuen egonaldietako batean. Gogoratzen dut orduko poza, ezinego-na, ilusioa, beldurra...

Bertara iristearekin batera hasi nintzen ezagunen bat bilatzen: Imanol Agirre, Alexis Apraiz, Pablo Urrizelki... Baina, jarraian, enpresako prentsa arduraduna etorri eta hoteleko aretora joan behar genuela esan zidan. Igogailua itxaroten geundela, norbait jarri zitzaigun alboan. Begiratu eta Aimar Olaizola ikusi nuen nire aldamenean. Segundo baten buruan beroa eta izerdia nabaritzen hasi nintzen gorpu-



Iñaki Iza
Zarazua
Pilotari ohia

Orduan inguratu zitzaizkidan kide berriak zorionak ematera. Taldearen parte nintzen. Pilotari profesionala

tzean. Metro erdi eskasera neukan 24 ordu lehenago buruz buruko txapel handia irabazi zuen pilotaria. Luze egin zitzaidan elkar aurkeztu gintuzten arteko momentua, zer esan eta no-ra begiratu jakin gabe. Aurkezpenean, nire partiduren bat telebistaz ikusia zuela esan zidan Aimarrek. Berriz ere azkartu zitzaidan bihotza. Nola zitekeen Olaizolak nire partiduak telebistaz ikusi izana? Surrealista izaten ari zen dena. Solasaldi labur baina atsegin baten ondoren, aretoan egin beharre-koei ekin genien: argazkiak, elkarrizketak, arropa jantzi, argazki gehiago...

eta bukatzeko, talde-argazkia. Orduan inguratu zitzaizkidan gainontzeko kide berriak zorionak ematera: Beloki, Zearra, Bengoetxea, Patxi Ruiz, Unanue... Taldearen parte nintzen, azke-nean. Pilotari profesionala. Txikitako ametsa betetzen ari nintzela sentitu nuen, eta banekien egun hura ez nuela bizitza osoan ahaztuko.

Antzeko sentsazioak izaten ariko da asteotan Aimar Morgaetxebarria. Zalantzarik gabe, ilusio berezia egiten dit atzelari zornotzarraren debutak. Izan ere, uztailaren 16an, Karmen egunez, herriko pilotalekuan jokatu du lehen partida profesionalean; 15 urte lehenago neurea jokatu nuen frontoi eta egun berean, alegia. Oroitzapen ezin hobeak ekarriko dizkit herriki-dearen debutak. Gozatu bide berriaz, Morga!



Jairik jai!

Urkiolako San Antonio jaiak





Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!

“Donut kultura handia dago eta hori aldarrikatu gura dugu”

CrisLa gozotegian bonba eta cookie amerikarrak dira protagonista, osagaietan bereizterik egin barik. Arraina, okela, itsaskiak, kabiarrak... dena da baliogarria postre bat sortzeko



Cristina (1990) eta Laura (1985) Garcia Suarez
CrisLa Gozotegia
DURANGO

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Cristina eta Laura ahizpek gozotegia zabaldu zuten urrian, eta pozarren daude izandako harreragaz, oso eskertuta. Laurak du gozotegiaren ardura. Cristinaren bizipoza sukaldaritza da. Galdakaon sukaldaritza ikasketak egin eta gero, Bartzelonara joan zen, gozogintza ikastera. Azurmendin eta Neurua jatetxeetan lan egin du eta Paco Torreblancagaz eta Angel Leonegaz jardun du. Eneko Atxagaz ere bai, Errusian, eta Thierry Bhamasegaz, Frantzia.

Zerk eroan zaituzte gozogintza amerikarrean espezializaturiko gozotegia zabaltera?

Cristina: Beti gura izan dut neure

negozioa ipini. Baina ez dut argi izan zer, eta ahizpak gozotegia zabaltzeko esan zidan. Inguruko merkatu azterketa bat egin ondoren, gozogintza amerikarra esploratzeko merkatua zela ikusi genuen. Gozotegia bikotekideagaz jatetxea zabaltzeko azken pausoa da. Familia-jatetxe bat zabaldu gura dut, eta nire esperientzia gastronomiko osoa eskaini.

Laura: Gainera, amerikarra, yankia den guztiaren frikiak gara, oso fanatikoak. Ez gu bakarrik, gure bikotekideak eta gure gurasoak ere bai.

Ezohiko postreak dira zuenak.

C.G.: Batez ere, donuta zabaldu gura dugu. Zulodun donut borobil bat

baino haratago doazen historia eta kultura daude atzean, ezagutzen ez duguna. Donuta erroskilla batetik dator: Old-fashioned-etik. Donut kultura handia dago eta hori alda-

Amerikarra, yankia den guztiaren frikiak gara, oso fanatikoak. Ez gu bakarrik, bikotekideak eta gurasoak ere bai

rrikatu gura dugu. Buttermilk, apple fritters... ere baditugu. Bestalde, dastatzeko menua eskaintzen dugu, beste establezimendu batzuekin elkarlanean antolaturiko ekitaldieta-

rako. Adibidez, Durangon postreak dastatzeko menua antolatu izan dugu, koktelekin uztartuta, dena zuzeneko musikagaz. Gasteizen eta Bilbon ere egin ditugu.

Zer eskaintzen da ekitaldi horietan?

C.G.: Oso esperientzia sentsoriala da. Aperitibo bigaz hasten gara,itsu-itsuan hartzeko, eta, gero, bost postre eskaintzen ditugu plateretan, gozoa eta gazia uztartuta. Kafeagaz hartzeko, petit fours batzuekin amaituko dugu.

L.G.: Zer jango duten eta zelan ez dakite. Sorpresaz beterik daude.

Zerk du arrakastarik gehien?

C.G.: Albaka pestoak.

L.G.: Gozotegian, Oreozko cookie-ak. Kinder edo nuteladunak ere bai. Baina hirugihardun bonba gomendatzen dugu. Hirugiharra badago poztasuna dago (barrez).

Azaloreagaz eta txokolate zuriagaz sortu dugu postre bat, eta Jack Daniel's, kakaoa, banilla eta aingira karamelizatua daraman bat

Egin duzun postrerik zoroena?

C.G.: Denerik egin dugu. Oso arrakastatsua izan zen shiso berdea, banilla eta lima erabilita egin genuena. Azaloreagaz eta txokolate zuriagaz ere sortu dugu bat, eta Jack Daniel's, kakaoa, banilla eta aingira karamelizatua duena.

Astero postre berri bat sortzen duzue.

C.G.: Bai. Erraz aspertzen gara eta bizigarrirei jarraitzen diegu. Egunero berdina eskainiz gero, zertara etorri berriro? Geldiezina naiz eta gastronomian modan dagoenari arreta handia ipintzen diot. Oso zoriontsua naiz menuak sortzen, asko disfrutatzen dut; batez ere, euskal gastronomia beste batzuekin fusionatuz.

Postreak neurrian jan behar dira.

C.G.: Ez dira egunero jatekoak, ez, baina osagai eta lehengairik onenak dituzte. Opil industrialak baino osasuntsuagoak dira.

Zuen postrerik gustukoena?

C.G.: Comtessa tarta. Baina ez naiz batere postrezalea.

L.G.: Amaren arroz-esnea. Baina, orain, gazia gurado dut.

Lauhortza

Ibai Zabala
Gandarias
Irakaslea



Onak eta euskaldunak

Aspaldian, noraezean dabilkigu Espainiako gobernuko agintaritzan dagoen alderdiaren EAEko filiala. Idazkari nagusi berriaren izendapenak, paper baten laguntzarik gabe euskara txukun batean aritzeko gai den lehenarenak, norabide aldatuta bat ekar zezakeela uste nuen, baina oker nenbilen. Ezkerra eta eskubia desberdinu gabe jarraitzen duela agertzeaz gain, Osakidetza baten euskararen erabileraren zein jakintza-aren aurka doazen zenbait adierazpen entzun ahal izan ditugu Eneko Anduezen ahotik.

Astea Osakidetza lan egiten duten medikuei euskarazko 4. hizkuntza eskakizuna (C2) ezin zaiela eskatu esanez hasi zuen; ausart, baina ez jakin. Zergatik? Bada, zoritxarrez, osasun langileei gehienez 2. hizkuntza eskakizuna (B2) eskatzen zaielako. Are gehiago, hortik gorako gaitasuna dutenek ez dute puntu gehiago jasotzen, alegia, jakintza ez dela saritzen.

Hanka-sartze hori gutxi ez eta herenegun, akatsa zuzendu beharrean, berriz heldu zion hizkuntza eskakizunaren gaia-ri, kanpotik datozen medikuei ezin diegula hizkuntza eskakizunik eskatu esanez, mediku onenak behar ditugula arretarik onena eskaintzeko. Hizkuntza eskakizunak albo batera uzteaz ari zenean, euskaraz ari zen, noski, espainola nahitaez jakin behar dutelako.

Badakizue, espainolisten betiko galdera tranpatia: zer duzu nahiago, mediku ona ala euskalduna? Bada, zorionez, mediku bikainak eta euskaldunak asko ditugu, eta zuen ardura halako gehiago hezteaz izan beharko litzateke.

Mediku on eta euskaldunak nahi ditugu, Eneko, eta politikariek ere gauza bera eskertuko genuke.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com